

EGUZKILORE

Número Extraordinario 10.

San Sebastián

Octubre 1997

211 - 248

1995eko KODE PENAL BERRIA BIKTIMOLOGIAREN IKUSPUNTUTIK*

Antonio BERISTAIN

Kriminologiaren Euskal Institutoaren zuzendaria

Laburpena: Arlo doktrinal, legal, judicial, jurisprudenzial, penitentziario eta polizialean gazteleraz biktimologiari arreta handirik ez zaiola eskaini gogoan hartuz, lanaren hasieran laburpen bat agertzen da gaur egungo zientzia biktimologikoari buruz. Erreferentzia berezia egiten zaie bertan biktimen motei eta kontzeptuei. Baita hauek berez duten indar birtualari ere, lege-hausteak -delituak, patentizatu egiten baita berorren existentzia- biktimizatu edota deusezdu dituen eskubideen eta ondasunen errekreazio baita indar hori. Gero, nolabait, zigor kode berriko (eta osagarri den legeriko) berrikuntza biktimologikorik esanguratsuenak aztertzen dira -espero eta beharrezkoak direnak baino gutxiago-, baita euretan ikusitako hutsunerik larrienak ere. Amaitzeko, polizia herritarrengandik eta biktimengandik "gertu" egotearen pertzepzioa eta balorazio soziala komentatzen dira.

Resumen: Ante la tan escasa atención que en castellano se presta a la Victimología en el ámbito doctrinal, legal, judicial, jurisprudencial, penitenciario y policial, comienza el trabajo con un resumen de la actual ciencia victimológica, con especial referencia a los conceptos y las clases de las víctimas y la fuerza virtual de éstas como recreadoras de los derechos y los bienes que la infracción –el delito, cuya existencia se patentiza– ha victimizado y/o destruido. A continuación se analizan las, en cierto sentido, más significativas innovaciones –menos de las esperadas y necesarias– victimológicas en el nuevo código penal (y escasa legislación complementaria), así como las lagunas de más urgente superación. Finalmente, se comenta la percepción y valoración social acerca de la policía en su "cercanía" a los ciudadanos y las víctimas.

Summary: Seeing the lack of attention rendered in the Spanish language to Victimology concerning doctrine, legal, judicial, jurisprudential, penitentiary and police matters, the task is addressed with a summary of current victimology science, stressing upon the reference made to concepts and types of victims and the virtual strength of the latter as recreator of rights and assets that infringement –the offense whose existence has been revealed– has either victimized and/or destroyed. The following is, in a certain sense, an analysis of the most significant victimological innovations –less than could be expected and desired– in the new Criminal Code (and the scarce complementary legislation), plus the lagoons which require the most urgent improvement. Finally, comments are made on the perception and social assessment of the police with regard to its "proximity" to both inhabitants and victims.

* Eskerrak ematen dizkiogu *La Ley* aldizkariari *Eguzkiloren* testu hau argitaratzeko baimena emateagatik (aldizkari horren 4.302 eta 4.303 zenbakietan argitaratuta zegoena alegia).

Résumé: Etant donné le peu d'intérêt manifesté en Espagnol pour la Victimologie en matière doctrinale, légale, judiciaire, de jurisprudence, pénitentiaire et policière, le travail débute par un résumé de la science victimologique actuelle. Il fait référence particulièrement aux concepts et aux genres des victimes et à la force virtuelle de ces dernières en tant qu'animatrices des droits et des biens que l'infraction –le délit, dont l'existence devient évidente– a rendu victime et/ou a détruit. Puis, ce travail présente une analyse des innovations victimologiques qui sont, dans un certain sens, les plus notoires –moins de celles qui sont attendues ou nécessaires– dans le nouveau code pénal (et législation complémentaire rare), ainsi que les lacunes en attente d'une solution plus urgente. Il s'achève finalement par un commentaire de la perception et de l'opinion sociale au sujet de la police dans son "rapprochement" vis-à-vis des citoyens et des victimes.

Auszug: Mit Rücksicht darauf daß man sich auf Spanish sehr wenig auf belehrend, gesetzlich, gerichtlich, rechtswissenschaftlich, strafrechtlich und politisch Gebiet um die geschädigten Lehre kümmert, fängt die Arbeit an mit einem Auszug der heutigen Geschädigter Lehre, mit spezieller Bezug auf die Ideen und die Klassen der Schlachtopfer und die schlummernde Kraft von diesen als Rechtsschöpfer und die Güter die strafbare Handlung –das Verbrechen dessen Existenz oft verwandtschaftliche verhältnisse hat– beschädigt oder vernichtet. Danach werden die wichtigsten Neuerungen– außer die notwendigen und erwarteten –in der Geschädigter Lehre im neuen strafgesetzbuch (und sehr wenig ergänzende Gesetzgebung) analysiert und auch die Lagen die überwunden werden müssen. Am Ende wird die Wahrnehmung und soziale Wertbestimmung über die Polizei und Ihre Nähe an die Bürger und Schlachtopfer besprochen.

ESKAINZA:

*Jose Ignacio Ullibarriri,
Kriminologiaren Euskal Institututik
benetako esker onez.*

AURKIBIDEA:

1. KODE PENALAREN ALFA ETA OMEGA HIRUGARREN MILURTEKOAN
2. BIKTIMOLOGIAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK
 - 2.1. Biktima kontzeptuak
 - 2.2. Biktima motak eta biktimizazioak
 - 2.3. Biktima, delituaren triangelu birtualean
 - 2.4. Abolizionismotik harago: delitua
 - 2.5. Biktimen protagonismoa
 - 2.6. Biktimizazioaren birtualtasuna
3. BIKTIMOLOGIA ESPAINIAKO KODE PENAL BERRIAN
 - 3.1. I. Liburuko berrikuntzarik aipagarrienak
 - 3.2. II. eta III. liburuetakoak
 - 3.3. Beharizan-egoera larrian dauden biktimei laguntza ematea (Desegoki deituriko eutanasia).
 - 3.4. Gainditu beharreko premiazko hutsuneak
 - 3.4.1. Kode penala
 - 3.4.2. Presondegiei buruzko legeria eta praxisa
4. POLIZIA, BIKTIMA ETA HERRITARREN ZERBITZARI ETA LAGUNA?
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK
6. BIBLIOGRAFIA

1. KODE PENALAREN ALFA ETA OMEGA HIRUGARREN MILURTEKOAN

“Mundua ekintzen osotasuna da, ez gauzena.

Die Welt ist die Gesamtheit der Tatsachen, nicht der Dinge”.

(Ludwig Wittgenstein, *Tractatus logico-philosophicus*, 1.1).

1996ko maiatzaren 25ean ezarri zen indarrean Espainiako kode penal berria, eta logikoa eta beharrezkoa zen, aldi berean, beronen alfa eta omega ere indarrean ezartzea, funtsa eta helburua legeari zor zaion errespetuaren barruan eta arauhausteen erantzunean. Datozen orrialdeetan kode penal berriarekin lortu nahi dena ze puntutaraino lortu den aztertzen saiatuko gara: oinarri berriak sortzea (gaur eta hemen, alfa biktimak dira), artikuluko berriak lantzea (gaur eta hemen, zientzia biktimologikoaren paradigmak ere hartu behar dituzte) eta helburu berriak jartzea (gaur eta hemen, omega biktimizazioen arreta birtual birsortzailea da).

Biktimen eta berauen birtualtasunaren azterketa egingo dugu lehenengo eta behin, gero artikuluko berrien edukia ikusiko dugu eta, azkenik, polizia herritar eta biktimekin dituen harremanak aipatuko ditugu.

2. BIKTIMOLOGIAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK: BIKTIMAK ETA DELITUAK

2.1. Biktima Kontzeptuak

Orrialde hauetan alde batera utziko dugu biktimaren nozio sakratua, izan ere, antzinako zenbait erlijio eta gaur eguneko sekta batzuek jainkoiei eskaintzen diete biktima eta sakrifikatu egiten dute mito edo promes bat betetzearren, edo begizkoak kentzeko (L. ARROYO ZAPATERO, 1996; E. NEUMAN, 1994, 28. or.). Guri biktimaren oinarrizko kontzeptu *berria* interesatzen zaigu, hain zuzen ere, zuzenbide penalari dagokionean eta, bigarren maila batean, Kriminologia eta Nazio Batuei dagokienean.

Jatorria gerraosteko hamarkadetan koka dezakegu, hau da, 1945 eta 1973 bitartean. Azken urte horren irailean, Jerusalem, Biktimologiari buruzko lehenengo nazioarteko sinposiuma egin zen; sinposium hori gaur egungo Biktimologiaren abiapuntua dugu (M.C. BASSIOUNI, 1988; A. BERISTAIN, 1987).

1945etik aurrera, biktimaren kontzeptu nagusia makrobiktimaren inguruan kokatu da, edo nagusikeriaren biktimaren, hain zuzen ere, nazismoaren biktimaren inguruan, sei milioi judutarren genozidioa dela eta. Makrobiktimizazio horrek azaltzen du, hein batean behintzat, Nazio Batuek, 1985eko Deklarazioan, idazati oso bat (B idazatia), nagusikeriaren biktimei eskaini izana. Deklarazio horretan biktimaren definizio hau egin zen: *“norbanako gisa edo kolektibo gisa, zuzenbide penal nazionalaren arau-haustea izan barik giza eskubideei buruz nazioartean onartuta dauden arauak urratzen dituzten egintzen edo ez-egiteen ondorioz, kalteak jasan dituzten pertsonak: lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideen kaltea”*.

Gero, delitu arrunten biktimei buruzko azterketa eta kontzeptua zabaldu zen, batez ere, emakume eta umei, hau da, zaugarrienei zegokienean.

Dogmatika penalean biktimatzat hartzen da, Herrera Morenoren iritizian, bidegabekeria tipikoaren subjektu pasiboa, hau da, egintza antijuridiko tipiko baten ondorioz, euren eskubideetan murrizketa jasan duten pertsonak, eta ez da beharrezkoa izango biktima-eragileak errua izatea. Biktimak, beraz, urratutako ondasun juridikoaren legezko titularrak dira (M. HERRERA MORENO, 1996, 332. or.).

Beste era batera esanda, biktima gisa hartzen dira juridikoki legeek babestutako ondasunetan (batez ere biziaren, osasunaren, jabetzaren, ohorearen, etab.en arloan) kalteak jasan dituzten pertsona natural edo juridikoak. Interesgarriak dira, batez ere, kode penalean tipifikatutako giza jokabideen ondorioz egindako kalteak biltzen dituzten suposamenduak, bai eta kalte horiek giza faktoreen, faktore mekanikoen edo faktore naturalen ondoriozkoak direnean, esaterako lan istripuak (E. NEUMAN, 1994, 29. or.).

Nazio Batuek, delitu eta nagusikeriaren ondoriozko biktimentzako justizia-printzipioei buruzko 1985eko azaroaren 29ko Deklarazioan, hiru biktima motaren definizio labur eta egokia eman dute. Lehenengo biak delituen biktimei buruzkoak dira, eta hirugarrena lehen aipatu dugun nagusikeriaren biktimei buruzkoa da.

Lehenengo bie dagokienez, orain gehien interesatzen zaizkigunak baitira, hauxe dio A idazatian: “1. *Biktimatzat hartuko dira, norbanako gisa edo kolektibo gisa, Estatu Kideetan indarrean dagoen legeria penala (nagusikeria debekatzen duena barne) urratzen dituzten egintzen edo ez-egiteen ondorioz, kalteak jasan dituzten pertsonak: lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideen kalte nabarmena*”. Eta, 2. zenbakian hauxe gehitzen da: “*Biktima esapidean, hala badagokio, honako hauek sartzen dira: biktimaren ardurapean dauden senide edo pertsonak, baldin eta beronekin harreman zuzena badute, edo biktimizazioa prebenitzeko*”. (Gero hitz egingo dugu biktimizazioari eta biktimizazio motei buruz).

Gaur egun Biktimologiaren arazo eta gorabeherak aztertzen dituzten zenbait teorizatzailek ohiko eskema juridiko-penalari lotuta jarraitzen dute, izan ere, mugatu egiten dute biktima kontzeptua delituaren subjektu pasibora (edo delitua dela-eta kalteak jasan dituztena), edota mugatu egiten dituzte euren eskubideak konpentsazio edo kalteordain handiago edo zabalago batera (gure kode penalaren 110. artikulua barruan), eta biktimaren eskubideak ahazten dituzte polizi arloari, prozedurari, kartzela arloari eta zigor eta segurtasun neurrien egikaritzari garrantzi handiagoa emanaz. Logikoki delitu guztien subjektu pasiboak biktimak dira, baina biktima guztiak ez dira delituen subjektu pasiboak. Identifikazio hori gainditu beharra dago.

Indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko Legeak (35/95 L., abenduaren 11koa, 296 zk.dun EAO, abenduaren 12koa), 2. artikuluan, honako hau dio irizpide egokiz: biktima zuzenez gain (lesioak, etab. jasaten dituztenak delituaren ondorio zuzen gisa), *zeharkako biktimak* ere badaude. Tamalez, larregi mugatzen du zeharkako biktimen kopurua, izan ere, honako hauek bakarrik izan daitezke (zenbait murrizketekin): delituaren ondorioz hil den pertsonaren ezkontidea, seme-alabak eta gurasoak.

Biktimen kontzeptu zabalagoa ezarri du Paraguayko Kode prozesal Penalaren Aurreproiektuak, 1994koak, 67. artikuluan. Honela dio: “Biktima. Kode honek biktimatzat hartuko du:

- 1) delitua dela-eta zuzenean mindutako pertsona.
- 2) delituaren ondorioz biktima hilez gero, ezkontidea, bizilaguna edo senidea odolkidetasunezko laugarren graduaren barruan edo adopzioz, edo ezkontz-ahaidetasunezko bigarrena eta testamentuko jaraunslea;
- 3) bazkideak, elkarte bati dagozkion delituetan, baldin eta delitua elkarte hori zuzendu, administratu edo kontrolatzen dituztenek, edo gerenteek egin badute;
- 4) elkarteak, interes kolektibo edo zehaztugabeak kaltetzen dituzten egintza zigorgarriak direnean, baldin eta elkartearen helburuak interes horiekin zuzen-zuzeneko lotura badauka; eta
- 5) komunitate indigenak, diskriminazio edo genozidioa dakarten egintza zigorgarrien kasuan...”

Hitz gutxitan, biktimak, arau-hausteen subjektu pasiboez gain, arau-haustearen ondorioz, zuzenean edo zeharka, kalte nabarmena jasaten duten pertsona fisiko eta juridikoak dira, eta justiziaz, eskubide berri eta garrantzitsuen hartzekodunak dira, nahiz eta gaur egungo hainbat legeriak oraindik bazter utzi edo ukatzen dituzten (M. HERRERA MORENO, 1996, 328. or.).

2.2. Biktima Motak eta Biktimizazioak

Hurrengo orrialdiaren koadroan (Dünkel-enaren (1990, 167. or.), Landrover-enaren (1990, 39. or.) eta Neuman-enaren (1984, 69. or.) antzekoa) zenbait biktima mota bildu dira, erruduntasun maila desberdinekin.

Era berean hiru biktimizazio mota desberdintzen dira: lehen mailakoa, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa. Lehen mailako biktimizazioa krimenetik ondorioztatzen da zuzen-zuzenean. Bigarren mailako biktimizaziotzat hartzen dira, delituko biktimei, lekukoei eta subjektu pasiboei justizia egiteko ardura duten erakundeek (poliziak, epaileak, perituak, kriminologoak, kartzela-funtzionarioak, etab.) eragiten dizkieten sufrimenduak. Eta hirugarren mailako biktimizazioa, batez ere, biktimaren beraren jokabideak eragiten du: batzuetan, adskripzio eta etiketatze prozesuen eta bizipenen emaitza gisa agertzen da, lehen mailako eta bigarren mailako biktimizazioen ondorio edo “balio erantsi” gisa. Esate baterako, baten batek, lehen mailako eta bigarren mailako biktimizazioak, zentzu batean, harrigarria badirudi ere, emaitza arrakastatsu batera daramala jakinda (komunikabideetan ospea, talde extremisten onespina, etab.), bere buruaren irudi berri hori onartzea komeni zaiola ondoriozta lezake, eta rol horren bidez jasan dituen bidegabekeriak direla-eta bere erasotzaileei (batzuetan, legalak) mendeku hartzea erabaki lezake. Mendeku hartzeko, bere burua delinkuente, terrorista, drogazale, etab. gisa definitzen du. Biktima, heroi eta kanonizatuen artean izaten den zerikusi eta paralelismoa sakon aztertu beharreko kontua da, eta zenbait martiri eta santuen biografiek baliteke azterketa horretan argigarriak izatea. Gehiago aztertu beharko litzateke martiri batzuen eta hirugarren mailako biktimizazioaren arteko harremana. Baliteke heroi eta kanonizatuek eta hirugarren mailako biktimek hainbat puntu izatea amankomunean.

Erruduntasun maila			
Biktima	Mota	Partehartzea	Adibidea
Biktima erabat errugabea	Biktima "ideala"	Partehartze aktiborik gabe	- Bonba establezimendu publikoan - Pertsona bati lapurtu diote jakin barik arriskurik gabeko erdialdeko kale batean - Pertsona bati lapurtu diote ohe-bagoian lo dagoela, arriskurik gabeko trenean
Biktima erruduna partzialki	Biktima, ezkakintasunez edo zuhurtziagabetasunez	Gehiago edo gutxiago, gertakarian parte hartzea	Abortua eragitean hiltzen den emakumea
	Erruduntasun gutxi-ko biktima	Gehiago edo gutxiago, gertakarian parte hartzea	Ezkonberri faltsuari aurrezki-libreta eman dion emakumea
	Borondatezko biktima	Gehiago edo gutxiago, gertakarian parte hartzea	Sendaezinezko gaixotza heriotza eragitea, berak nahi izan delako (hilketa-suizidioa)
Biktima erabat erruduna	Biktima probokatazalea	Biktimaren partehartze eskusiboa, zigorgarria ez den gertakari biktimizatzailean	Legitimoki defendatzen den erasotzailearen eraginez hiltzen den erasotzailea.
	Delitua eragin duen biktima	Biktimaren partehartze garrantzitsua gertakari zigorgarrian	Iruzur egiten dioten iruzurgilea Diruarekin harroketan dabilen mozkortari kartera ebasten diote
	Biktima faltsua (delitu simulatua)	Salaketa faltsua	Emakume batek gizon bati mendeku hartu nahi dio eta bortxaketa leporatzen dio

2.3. Biktima Delituaren Triangelu Birtualean

Biktimologiaren helburuak lortzeko beharrezkoa da honako hauek onartzea: 1. delituaaren existentza juridikopenala; 2. delituaren oinarrian biktimen ukaezineko garrantzia kontuan hartzea; eta biktimen eta delituaren birtualtasuna. Gai hauei buruz mintzatuko gara aurrerantzean.

2.4. Abolizionismotik Harago: Delitua

“Estatu mailan gizartearen egiturekin bat datorren delituaren egitura bilatu eta aurkitu behar da, gizakia babes-teko (biktima eta biktimarioa), askatasunean eta duintasunean”

(A. Ibañez, J. Sampedro, *Temas de Derecho procesal Penal*, Univ. Javeriana Bogotá. 1995.79. or.)

Penalista adimentsu batzuek deliturik eza aldarrikatu dute; edo hobeto esanda haren abolizioa, Zuzenbide penala indargabetezko ondorio logikoarekin. Louk Hulsman eta Jacqueline Bernat de Celis, M. Foucault, Nils Christie, Raul Zaffaroni-k, besteak beste, ildo honetatik bideratu dituzte euren arrazoibide eta ñabardura zuzen eta egokiak (asko eta asko ñabardurak baino zerbait gehiago dira).

Lehenengo eta behin abolizionismo maila bi bereiztu behar ditugu: A) batetik, delitu nozioari uko egiten diotenak daude. Hauen iritzian ezein giza jokabidek ez ditu biltzen dogmatika penalak kontzeptu horretarako eskatzen dituen betekizunak (ohiko ekintza antijuridikoa, erruduna eta zigorrarekin zigortua); B) beste batzuek, ordea, zigor guztiak baztertzen dituzte, krudelak, kaltegarriak eta funsgabeak direlakoan. Doktrina hauek *ius punendia* ukatzen dute, zigor panalaren funtsa, hain zuzen. Gure hizkuntzan esango genukeenez, boterearen mendekutzat dute zigorra, krimonogenotzat. Arlo honetan oso egoki mintzatu izan da bere lanetan Raul Zaffaroni, bai eta beste zenbait kide ere.

Deliturik eza aldarrikatzen dutenei dagokienez, oso argudio sendoak eman izan dituzte, batez ere zenbait garai historikoren azterketa egin izan dutenean, delitutzat hartutako giza jokabide batzuek ez zituztela egotzitako ezaugarriak argudiatuz. Erotutako pertsonak egindako ekintzak ditugu gogoan, edota neurrigabeko bidegabekeriak gainditzeko asmoz gauzatutako jokabideak, hala nola, grebak, neurrigabeko gainbalioa eurenganatzan zuten enpresa-nagusien gehiegikeria krudelen menpe zeuden langileak babesteko. Eduki-arau penalak ere ekarri behar ditugu hona, bai eta auzitegien praktika judizial inquisitorialak ere.

Logika sendoz arrazoitu izan du L. Hulsman lagun eta kideak, baina ez beti. Esaterako kritikagarria izan daiteke honako elkarrizketa izatea semearekin delinkuenterik ez dagoela frogatzeko:

Pere, est-ce qu’il y a des gens vraiment mauvais?, eta erantzuna: Je ne sais pas, Lodewyk, mais je n’en ai jamais rencontré. (L. HULSMAN, J. BERNAT DE CELIS, 1982, 45. or.) (*Aita, ba al daude benetako pertsona gaiztoak? –Ez dakit, Luis, baina nik inoiz ez ditut ezagutu.*) (L. HULSMAN, J. BERNAT DE CELIS, 1984, 33. or.)

Arrazoi handia dute hauek eta beste kide batzuek, inor ez dugula delinkuentzat jo behar esatean; auzitegiak pertsonen ekintzak, bai, baina pertsonak ez dituela epaitzen esatean; eta inor ezin duela hiltzaile edo bortxatzailetzat jo esatean... Hala ere, lagunarteko hizkeran, norbait delinkuentea dela esatean delitua egin duela esan nahi izaten dugu, eta ez delinkuentea dela pertsona gaiztoa delako.

Zenbait kideren iritzi hauen parean, delituztat jo behar liratekeen giza jokabideak aipatu nahi ditugu. Arlo honetan, gizarteko elkarbizitza, gutxi gorabehera, *vellis nollis*, nahitaez, asaldatzen duten giza eta gizarte ekintza motak sailkatzen dituen koardoa aipatuko dugu labur-labur.

	I	II	III	IV	V
A Ekintza gatazkatsua	Arau-haustea / delitu erruduna	Zorra	Gatazka	Jakineza / gaitasunik eza	Gabezia / beharrizana / gaixotasuna
B Prozedura / kontrol soziala	Zuzenbide penala / Justizia sistema	Indemnitazioz- koa / Ordaintzekoa/ Konpentsazioz koa (zibila edo penala)	Adiskidetz- koa (zibila, penala edo soziala)	Pedagogikoa (laguntzailea)	Tratamendu medikoa (laguntzailea)
C Erreakzioaren hasiera / eskuhartzea	Komunitatear en Erreak. (polizia) / Biktima	Taldearen Erreakzioa / auzilariak/aur kakoak (lehiakideak)	Komunitatear en erreak. / Ikaslea	Komunitatear en erreak. / Subjektu makurra	
D Subjekt. iden. / gizabanak. arazoa	Delinkuentea/ arriskutsua/ arau-hauslea/- makurra	Zorduna	Auzilariak/aur kakoak (baztertua)	Per. hezigabea/ez jakina edo gaitasun gabea	Gaixoa/Bezer oa
E Prototipoa / Eredua / Jarraibidea. Araua	Debekua/ Tipifikazioa	Obligazioa/B etebeharra	Harmonia	Prestatua/He ziketaduna	Normaltasuna
F Erreakzioa/ Urtenbidea / Helburua	Zehapena / Zigorra (Sorkuntza)	Ordainketa / Konpentsazio a (Dirutan / espezietan)	Gatazkaren urtenbidea	Norma. egiazt. / Ahalmen aintzatespena	Laguntza / Tratamendua

Egia da; kode penalak delitu gisa tipifikatzen dituen zenbait jokabidek ez dute kalifikazio hori merezi. “Zorra” edo “gatazka”, edo “jakineza” edo “gabezia (gai-xotasuna)” atalean sailkatu beharko lirateke. Hala ere, zenbait ekintza I. zutabearen bakarrik sar daitezke “errudun delitua” (erruduntasunarekin, baina ez erruduntasun etiko eta pertsonala) laukian hain zuzen; esate baterako, jokabide genozidak edota terroristak.

Jokabide honek eta antzekoek, kriminaltasun antolatua delakoak, esaterako, delitu nozioa sakon-sakonetik eguneratzea eskatzen dute. Gure iritzian, elkarbizitza sozialak, justiziak eta zuzenbideak, dogmatika penalaren barruan –behar den beza-la eguneratua– delitu izendatu behar diren jokabide biktimizanteak daudela onartzea eskatzen dute ezinbestean.

Horretarako bidezko izan liteke delituaren kontzeptu tradizionala kritikatzeko, delinkuente eta Estatuko agintaritzaren arteko binomio gisa hartzen den neurrian. Era berean, beharrezkoa izango litzateke delitu kontzeptu berri batekin erkatzea ere, biktima, delinkuentearekin eta agintaritza sozial edo komunitarioarekin batera, triangelu birtualean sartuz.

Beste era batera esateko, zientzia kriminologiko eta biktimologikoen ildotik, gure iritzian erro-errotik zuzendu behar da kode penal askotan eta jurisprudentzian azaltzen den delitu kontzeptua.

Gaur egun, kode penal gehienek harreman duala jotzen dute delituan. Eta berdin esan behar da prozedurazko legeei dagokienean ere. Lege-arau hauek guztiek erabat baztertzen dute biktima, edo kontuan hartzen badute ere, azken mailan jartzen dute. Hori dela eta, abenduaren 11ko 35/1995 Legearen Arrazoien Azalpenean hauxe dio besteak beste: *“Delituaren biktima nolabait baztertu egin da, sistema penalak, lege penala urratzen zuten gatazkei urtenbidea emateko, mendeku pribatua eskuhartzeko publiko eta instituzionalaz –inpartziala eta grina gabea– ordeztu zuenetik”*.

Gai honetan interesgarria izan daiteke gogoratzea Espainiako Kriminologia Institutu guztietako 20 kriminologo inguruk 1996ko irailaren 20an, Sevillan izan zuten batzarra. Jardunaldiaren amaieran, ondorioen idazketa eginda zegoela, biktimen aipamena falta zela esan zen, funtsezkoa eta ezinbestekoa. Zorionez, arazoari buruzko elkarrizketa bat izan ondoren, biktimari laguntza ematearen garrantzia azaldu zen, eta azken ondorioan azpimarratu zen.

Antzeko zerbait gertatu zen Europar Kontseiluan, lau egunetarik azkenengoan (1996ko azaroren 19tik 22ra), “Politika Kriminala eta Zuzenbide Penala, etengabeko bilakaeran ari den Europan” izeneko jardunaldietan. Azken jardunaldian aurkeztu ziguten ondorioen zirriborroan ez zen aipamenik ere egin kriminaltasunaren biktimei buruz. Arazoari buruzko eztabaida labur bat aski izan zen hutsune hori konpontzeko.

2.5. Biktimen Protagonismoa

Biktimak baztertu izana 1973. urtetik honantza nabarmendu eta kritikatu da batez ere. Eta askoz gehiago 1979tik honantza. Urte horretan sortu zen

Biktimologiako Mundu Elkarte, Westfaliako Münsterren, Biktimologiari buruzko Nazioarteko Hirugarren Sinposiumean.

Mundu Elkarte honek arreta handia merezi duten aurrerapenak eskaini dizki-gu, izan ere, Zuzenbide Penalaren arloan garrantzitsua dena ari da berreskuratzen: biktima, mende askotan zehar (ez, baina, hasierako “garaietan”) baztertua izan dena.

Berreskuratze honetatik oso ondorio garrantzitsuak atera dira: ezin da hitz egin delituez biktimak aipatu gabe “victimless crimes”; delinkuente eta estatuko agintari-ek, biktima aipatu behar dute hasieran eta amaieran, alfa eta omega bezala. Eduki-arauek zein prozesalek, poliziak zein gartzeletako funtzionarioek biktima hartu behar dute gunetzat.

Tamalez, delitua eta falta definitzen duten lege-testuek, ez dute biktimaren aipamena egiten. Ez eta ondoren aipatuko ditugunek ere: Konstituzioak 25.1, 1.1 eta 81.1. artikuluetan; 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Hitzarmenak 15. artikuluan; 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 11.2. artikuluan; 1950eko Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europar Hitzarmenak 7. artikuluan; Gartzeletako Lege Organiko Orokorrak 2. artikuluan; Kode Zibilak 4.2. artikuluan; Kode penal militarrek 1, 2, eta 20. artikuluetan; Kode penal berriak 10. artikuluan eta Atariko Tituluan. Gehienetan, Espainiako Kode penalaren esku-argitalpenek, aurkibide analitiko zabala eta zehatza dute azken orrialdeetan (ez Mexikoko kode penalaren esku-argitalpenak, hain zuzen ere materia komunean Barruti Federalerako, eta materia federalean, Errepublika osorako Kode penalarenak; ez eta Barruti Federalerako Prozedura Penalen kodeak ere, Barruti Federalaren Justizia Prokuraduria Nagusiak argitaratutakoak), baina ez da azaltzen “biktima” hitza, eta agertzen bada ondoren aipatuko ditugun artikuluetan zehaztutako delituen subjektu pasiboak aipatzeko da: 195.3. artikulua, sorospen betebeharra ez egitea; 235.4. artikulua, ebasketei dagokien zigor gradua; 242.2. artikulua, lapurretei dagokien zigor-gradua; eta 250.1.6. artikulua, iruzurrei dagozkien zigorrak. Artikulu hauetan delituaren subjektu pasiboa hartzen da biktimatzat zentzu tradizionalen, baina ez biktimologiaren ikuspuntutik; horrela, agerian uzten dute bitarteko biktimaren kontzeptua ez dute-la ezagutzen, –hain zuzen ere Nazio Batuen 1985eko deklarazioan xehetasunez aipatzen dena–, ezta biktimen beste alderdi prozesalak, polizialak, eta presondegi-arlokoak ere.

G. Kaiser-ek dioenez (1991, 4. or.; 1996, 311. or. eta ond.), “*The crime committed, no longer appears to be an unilateral act controlled by the offender, but rather as a dynamic process of reciprocity between offender and victim. In addition, this new way of thinking promises the opening up of new offender-oriented perspectives*”. Beraz, delitua binomio estatiko edo esentzialistatztat jo beharrean, triangulu birtual eta existentzialistatztat hartuko dugu. Biktimak izan behar du ardatza, bere birtualtasun guztiarekin.

2.6. Biktimizazioaren Birtualtasuna

“Legazpian nengoan, ikaragarritzko nabe baten bazterrean eserita; pentsatzen ari nintzen pipa erretzen nuela, eta langile batzuek makina handi bat lotu zuten kableekin, altxatzeko. Espazioak nabean zegoena zapaldu zuela sentitu nuen. Kableek makina altxatu zutenean, espazioa haren azpian sartu eta altxatzen laguntzen zuela ikusi nuen”
(Eduardo Txillida)

Delitua triangelu birtual gisa hartuz gero, “birtual” adjektiboa komentatu beharko genuke. Kontzeptu honen bidez biktimei egiten diegu erreferentzia; izan ere, biktimek leheneratzeko, hau da, kaltearen konponketa eta kalte material edo moralen ondainketa hutsa gainditzeko eta birsortu eta onera etortzeko gai den indar dinamikoa dutela kontuan hartu behar da (cfr. espainiar Kode penal berriaren 110. artikulua).

Birtual esatean, zerbait sortzeko bertutea-indarra izan, bai, baina oraindik agerikoa ez denaz ari gara. Zerbait alegiazkoa dago, baina ez erreala. Birtuala etorkizunaren aurreikuspena da. Ez da existitzen, baina terminologia eskolastikoa erabiliz, etorkizunean gertagarria da. Gertatzeko eragingarritasuna eta eraginkortasuna gainezka daude; dinamizazio prometeikoaren aukerak asko eta asko dira.

Harrigarria badirudi ere, behin eta berriro azpimarratu behar dugu delituen biktima guztien indar sortzailea edota birsortzailea, salbuespenik egin gabe.

Norbaitek, ordea, kontrakoa pentsa lezake, eta baliteke biktimek ez dutela indarrik ez eta aski birtualtasunik baieztatzea, edo zenbait delitutan ez dela biktimarik esatea, edo kalteak beraiekin adiskidetu nahia agertzean biktimak hil direla. Eman ditzagun, barbarako, hilketa kasuak: hildako pertsonak ez bazuen familiarik edo handik denbora gutxira hil badira, dioetenez, ez dago delinkuentearen birpertsionalizazioan lagun dezakeen biktimarik.

Hala ere, muturreko kasu horietan ere, izan daitezke biktima sinbolikoak edo ordezkagarriak, zeregin birpertsionalizatzaile hori bete dezaketanak. Biktima ordezkagarri horren adibide bat datorkit gogora: Ralf Sonntag-ek maistra bat hil zuen Alemanian. Biziarako kartzela-zigorra ezarri zioten. Kartzelan urte batzuk egin zituela, maistraren senideak ezagutu nahi zituen, baina ezin izan zuen, senitarako eta lagun guztiak hilda baitzeuden. Hala ere, 1989ko uztailaren 5ean Seminario bat egin zen Münster-go Unibertsitatean, eta bertara joateko aukera izan nuen, Kriminologiako hainbat irakasle eta ikasleekin batera. Seminario horretan Ralf Sonntag-ek guztiz elkarriketa positiboa izan zuen Gabriele Kleb-Braun-ekin, asasinatutako beste maistra baten alabarekin, hain zuzen. Elkarriketa pertsonal haren aurretik ere, Ralf Sonntag harremanetan izana zen eskutitz bidez Gabriele Kleb-Braunekin.

Bi pertsona horiek harreman epistolarra dute aspalditik. Eskutitz horietako batzuk *Kuckucksei* aldizkarian kaleratu dira. Aldizkari hori Schwerte-ko (Alemania) kartzelako presoek argitaratzen dute, eta kartzela horretan dago hain zuzen Ralf Sonntag. Eskutitz horiek irakurtzean, biktima eta delituaren egilearen artean harreman-zubiak ezartzeko aukera agertzen du. Zenbait idazati aipatuko ditut. 1988ko uztailaren 4an Münster-etik idatzi zion delitu-egileak: *“Nire iritzian, delitu-egileak eta biktimak nolabaiteko lotura dute beraien artean nahi eta nahi ez, izan ere deli-*

tu egintzak bizitza aldatzen du...”; “Gizarte kontrolerako sistema batek, biak alden du eta aurkakotasunera daramatzen, ezin du adiskidetzera bidea zabaldu”.

Ralf Sonntag-ek, hil horren 21ean, eskutitz luze batekin erantzun zion. Lerro bi edo hiru ekarri ditut hona: “Nire erruduntasuna aitortzen dut.

*Ez, ni biktimizazioaren beldur naiz, kalte egin duenaren eta kaltea jasan duenaren beldur. Gure arteko distantzia gora-behera, gauza batek batzen gaitu: arrazoi berdinak mintzen gaitu... zurekin dudak elkarriketak garrantzi handia du niretzat...” (A. BERISTAIN, 1990). (Idazati honen hasieran ikusi dugun kontraesana Raskólnikov-ek Soniarekin izandako elkarriketa dakarkigu gogora *Crimen y castigo*).*

Seminario hau amaituta gero ere Sonntag eta Gabriele Kleb-Braun-ek harremanean jarraitu zuten eskutitz bidez.

Beste ikuspuntu batetik Jose Ignacio Ullibarriren idatzi bat aipatu behar dugu hemen. “Aportaciones para una Deontología profesional del Criminólogo” izeneko artikuluan hauxe esan zuen lehenengo jokabide-arauari buruz: “*Lehenengo eta behin, ikuspuntu antropologikora jo behar da: giza izaera amaitu gabekoa da, bilakaturia eta inguru eta kultura aldakorretan gizarteratua. Ulerkera erlatibista eta ebolutibo honek ematen digun giza aberastasuna batertuz gero, giza izaeraren benetako funtsaren ulerkera baztertuko genuke... Hain zuzen ere, horixe da, “bipertsonalizazio” hitzaren bidez izendatu ohi duguna”.* (J. I. ULLIBARRI, 1994, 161 eta 163. or.).

Hartmut Schellhoss-ek “Kriminalitatearen funtzioak” (1993) direla-eta esandakoetan, kriminaltasunaren alderdi paradoxiko positiboak aipatu zituen. Guztiok onartzen eta tamalgarriztat jotzen ditugu, Schellhoss-ek hasiera-hasieratik bezala, delinkuentziaren ondorio disfuncionalak; hala ere, baditu zenbait alderdi positibo eta birtual ere. Saihestu egin behar dugu kriminalitate gabeko gizartearen utopia. Biktimizazioak oso ondorio ezkorrek ditu, baina, Karl Marx-ek gogoratu digunez, biktimizazio horren ondorio dira, baita ere, zientzia juridikopenala, irakasleak, unibertsitatea, etab. Horrez gain, ekarpen ekonomikoak ditu, aldaketa sozialak eta kulturak, bai eta biktimekiko elkartasuna ere, erreakzio gisa. Ikerketa estatistiko koantitatibo eta koantitatibo bidetik, eztabaidagai da, deliturik egiten ez duen herritarren kopurua gehiengoa den ala ehuneko berrogeita hamar ingurukoa den. Inork ez du esaten arau-haustea saihestea denik onena. Ez da komenigarria ordaina eskatzen zuen Zuzenbide penal tradizionala aplikatzea ere; Zuzenbide penal berria behar dugu, desberdina, birsortua.

Ez da gehiegizkoa baieztatzea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalen lehenengo artikulua adiskidetzera eskatzen duela (arerio diren pertsonak adiskide bihurtzea) honako hau esatean: “*gizakiek... anaitasunez jokatu izan behar dute elkarrekin*”.

Umeen Eskubideei buruzko konbentzioak ere adiskidetzera eskatzen du honako hau esatean: “*umeak familia baten barruan hazi behar du, zorientasun, maitasun eta ulerkortasun giroan, pertsonalitatearen garapen osoa eta harmoniatsua izan dezan*”. “*Nazio Batuen Gutunean aldarrikatutako idealen izpirituan hezi behar da haurra, bake, duintasun, tolerantzia, askatasun, berdintasun*

eta elkartasun izpirituan". Hau da, testu bietan esaten da elkarbizitzak (Zuzenbideak eta Justiziak bermatu edota berreskuratu behar duten elkarbizitza) anaitasun eta maitasun giroan garatu behar duela; ez da aski, beraz, elkarbizitza hutsa.

Budapesten, 1993an (abuztuaren 22tik 27ra) egin zen Nazioarteko XI. Kriminologia-Biltzarrean esan nuenez, Zuzenbide Penal tradizionalaren ezaugarri nagusiek, mendekuzko zigorra eta agintaritza eta delinkuentearen arteko aurkakotasuna bultzatzen dute. Premiazkoa da paradigma hori gainditu eta beste bat ezarzea: birsortzailea eta integratzailea, hain zuzen ere elkarriketa, adiskidetzeta eta berradiskidetzeta bultzatzen duena.

Paradigma biek –mendekuzkoa (M) eta birsortzailea (B)– eskema honetan labur genitzake:

MENDEKUZKO PARADIGMA		PARADIGMA BIRSORTZAILEA
Delitua Estatuaren arau penala urratzea da.	1	Delitua, pertsona jakin batzuei edota gizarteari kalte egiten dion jokabidea da (delinkuentearena eta berau inguratzen dutenena).
Mendekuzko justizia, gaitzespenean, erruduntasunean datza; iraganari begira dago, delinkuenteak egin zuenari, hain zuzen.	2	Justizia birsortzailearen, zigorraren erreakzioan barik (malum passionis propter malum actionis); ulermena eta ordena berri baten sorkuntzan datza: kategile eta biktimaren arteko harreman berria sortzea.
Arerio eta aurkakotasun harremana dagoela aitortu da; harreman horretan, arauko eta legezko prozesuan arerioa garaitu eta menperatua da.	3	Biktimak protagonista dira delituak asaldatu duen errealitatearen gizarte-berre-raikuntza (birsortzea) planifikatu eta proiektatzeko (zigorra erabakitzea, <i>sentencing</i>) elkarriketa-topaketaren <i>iter</i> prozesalean.
Zigorra ondorio (natural) mingarria da, eta berarekin dakar (castigando se defendere), edo hala nahi du, prebentzio orokor eta berezia.	4	Zigorra ez da ondorio ontologiko naturala. Gizarte eraikuntza da, sortzea da; baina ez ezereza sortzea; kaltetu den horretatik abiatuz egindako sorkuntza baino, hau da, zauritik hasita balio positiboa duen orbaia sortzen da, etorkizunari begira.
Justizia administrazioa "beharrezko" prozesu gisa definitu da, legezko arauen arabera.	5	Justizia Administrazioa betetako betebeharren emaitza gisa erne eta sortzen da.
Delitua, indibiduoak Estatuaren aurka duen gatazka (erasoa) gisa ulertu da. Alde batera utzi dira, gutxietsiz, alderdi interpersonala eta gatazka sua.	6	Delitua bidegabeko egoeraren icebergaren burua da, delinkuenteak, egintza "askearen" bidez, burutzen duen ibilbidea (egintzara iragaitea, espezialista frantsesen arabera).

MENDEKUZKO PARADIGMA		PARADIGMA BIRSORTZAILEA
Delituaren subjektu pasiboak jasan duen kaltea, delinkuenteari kalte eginez berdintzen da (eskatzten du).	7	Gai nagusia sorkuntza da, iraganean egin-dako kaltetik abiatuz etorkizuneko ordena soziala birsortzea da (ez ezerezetik hasita; ez delinkuentearen “aurkako” jokabideaz).
Komunitatea (eta biktimak) baztertu egin da, eta Estatuan kokatu da abstraktoki.	8	Komunitatea (delinkuentea barne), iraganeko delitutik abiatuz (beronek bultzatua eta bideratua), birsortze prozesuaren katalizatzaile gisa.
Lehiakortasuna eta balio indibidualak bultzatu eta sustatzen dira.	9	Delinkuentea, “aurkaria”, osagarritzat hartzen da.
Zigorra, Estatuak delinkuentearen aurka duen erantzuna da. Biktima ignoratu eta delinkuentea jarrera pasiboan azaltzen da.	10	Biktimaren beharrianak eta eskubideak aitortzen dira, baina baita bere betebeharrak eta izan ditzakeen erantzukizun eta errukidetasunak ere. Delinkuentea dagozkion erantzukizunez jabetu eta arduratu dadin ahalegintzeaz gain, bere eskubideak aitortzen zaizkio, batzuk, beharbada, biktimarekin lotuta, hau da, delinkuentea <i>versus</i> biktima.
Delinkuentearen betebeharra zigorra betetzea (jasatea) da.	11	Delinkuentearen betebeharra da, baina baita biktimarena eta gizartearena ere (guztiona eta bakoitzarena), beraren ekintzaren ondorio egindako kaltea onartzea, eta, hiru egilekideen artean (batzuk besteak baino baino gehiago, baina guztiak egilekide eta birsortzailekide), etorkizuneko elkarbizitza berreraikitzeke konpromezua hartzea.
Delinkuenteak ez du erantzukizunik (ez du eskuhartzen) arazoaren (delitua) konponbidean.	12	Delinkuenteak erantzukizuna du konponbidean, baina baita biktimak eta gizarteak ere. Iraganeko arazoa (delitua) konpontzea baino gehiago, etorkizuneko elkarbizitza sortu edo birsortzea da gunea.
Delinkuentea salatzen da.	13	Egintza berresten da (ez da ezer epaitzen), baita ondorioak eta egilea (hirukoitza: delinkuentea, biktima eta gizartea) ere. Ez denez epaitzen ez da salaketarik egiten, izan ere hitz honek aurreiritzi ezkorra dakar.
Delitua formulazio legalaren arabera definitzen da, eta ez dira kontuan hartzen alderdi morala, soziala, ekonomikoa eta politikoa.	14	Delitua azaldu eta ulertzen da birsortze prozesuaren gorantzako erritmoaren barruan; prozesu honek aurreko sistema morala, soziala, ekonomikoa eta politikoa gainditzea (eta hautsi?) dakar.

PARADIGMA VINDICATIVO		PARADIGMA RECREATIVO
Delinkuentea zorretan dago Estatuarekin eta gizartearekin abstraktuan.	15	Gizon eta emakume guztiok gara delitu bakoitzaren erantzukide (gutxi gorabehera); eta horrexegatik hain zuzen, etorkizunaren sortzailekide ere bagara.
Zigorak delinkuenteak egindako egin-tza hartzen du kontuan.	16	Erantzunak, egoera horretatik hasi eta etorkizuneko elkarbizitza birsortzea du helburu (delitutik eta egoeraren arabera-ko gorabeheretatik hasita).
Delituaren estigma ezabaezina da.	17	Delituaren estigma aldi baterakoa da, gizatiarra den oro bezala. Denboraren joanak ezabatzen du. Etorkizunaren birsorkuntzak hartzen du haren lekua.
Ez dira sustatzen damua eta barkamena.	18	Zigorren gainetik, damua eta barkamena bilatzen dira, bai eta juridikoaren mugak gainditzen dituen adiskidetzeta ere.
Justizia penala gobernuaren esku profesionaletan bakar-bakarrik dago.	19	Justizia (baita penala ere) herritik dator, eta kriminologian, eta disziplina arteko eta disziplina anitzeko zientzietan aditu direnen lankidetzeta ere behar du.

Labur-labur esateko, sistema bisortzaile berri honek aldarrikatzen duenez, biktimei birsortze arretoa osoa eskaini behar zaie dogmatika penalaren barruan –hala eskatzen duelako justiziak, ez karitatez–; sistema berritzaile honek biktima eta kaltegilearen arteko adiskidetzeta aldarrikatzen du. “Justizia betebeharrorrotzaz” hitz egin nuen, hain zuzen, Munich-en duela urte pare bat, lagunarteko bazkalondo batean, goi-mailako hiru penalista-kriminologorekin, irakasbide izan eta izango ditudanekin: Esther Giménez-Salinas, Claus Roxin eta Horst Schüler-Springorum. Nire iritzian Zuzenbide penalaren xedea kaltea konpontzea eta kalte materialak ordaintzea ez eze, biktimak eta delinkuenteak adiskidetzeta eta berradiskidetzeta ere izan behar du, nahiz eta zaila eta batzuetan ezinezkoa izan. Aipatutako hiru penalista-kriminologoen, ordea, baztertu egin zuten (batez ere alemaniarrek) nire iritzia. Nire “aurkarien” arabera, Zuzenbide penalak sakralizazioa alde batera utzi behar du, arlo erlijiosotik harago izan behar du. Terminologia alemaniarra erabiliz, *Ausgleich*-a lortzera mugatu behar du, hau da, konpentsazioa edo ordainketa, baina *Versöhnung*-a edo sinonimoa den *Aussöhnung*-a, hau da, adiskidetzeta, alde batera utzita. Izan ere, azken horren edukia arlo erlijiosoan dagokio, eta sarri entzuten da hitz hori eleizako erritualetan, baina ez kode juridikoetan. Duela gutxi, G. Kaiser-ek bere *Kriminologie*-ren 9. argitalpena oparitu dit. Eta ezusteko atsegingarria izan dut, delituaren erantzun gisa, zenbait kasutan, adiskidetzeta eskatzen duela irakurtzean, hau da *Versöhnung*-a (638. or.). Era berean adiskidetzeta (*Aussöhnung*) hitz egiten du *Lehrbuch* izenburuko lanaren hirugarren edizioan (1996, 1.038. or.). Kasualitatea izango da beharbada, baina Friburgeko katedra-

dunaren liburua jaso nuen astean berean, C. Roxin-ek bere *Strafverfahrensrecht* lanaren 21. edizioa oparitu zidan, eta 13. kapituluan, 395. orrialdean, adiskidetzeara, hau da, *Versöhnung*-a azaltzen da Prozesu penalaren jomuga gisa.

3. BIKTIMOLOGIA, ESPAINIAKO KODE PENAL BERRIAN

“Ondasun juridikoak babesteko betebeharra norbanakoaren esku uztea, askatasun printzipio konstituzionalaren aurkakoa litzateke. Estatu solidarioak ez du eragozten norbanakoak bere burua defendatzea, baina ondasun juridikoen defentsa instituzionala izan ezean bakarrik edo horrek huts egin badu”.
(A Giménez Pericás, “La Victimodogmática”, *La Victimología*, C.G.P.J., Madrid, 1993, 395. or.)

Espainiar Kode penal berria 1995eko azaroaren 8an onartu zuen Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak, eta Kode horren testua hil horren 24an azaldu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa da, eta 1996ko maiatzaren 25ean ezarri zen indarrean. Kontuan ditu, logikoa denez, biktimologiak bildutako zenbait berrikuntza, izan ere aurrera pausu horiek, azken hogeitortan gero eta onetsiagoak izan dira, nahiz eta muga eta kritika handiak izan. Hala ere, berrikuntza kopurua, bai kantitatean zein kalitatean, zenbait eremu zientifikotan espero zena baino askoz txikiagoa izan da.

Beste batzuek, berriz, jarrera tradizionalari eutsi diete, eta baztertu egin dituzte joera biktimologiko berritzaileak. Berbarako, Winfried Hassemer-ek, *Fundamentos del Derecho penal* izenburuko lanean, 91-97 orrialdeetan, alde batetik, biktimen aldeko arrazoi sendoak berretsi eta azpimarratu ditu, izan ere, bere iritzian penalistak arazo hauei guztiei heldu behar die: subjektuen gaitasuna eta joera delituaren biktima izateko; delinkuentearen eta biktimaren arteko harremana; kalteak eta haiek zuzentzea; profilaxis kriminala biktimaren aldetik; gizartearen eragina biktimizazio prozesuan eta biktima kasu zehatzak: adin txikikoen abusuak, bortxaketa, lapurreta, polikak eragindako indarkeria delituak, genozidioa, etab. Hala ere, Winfried Hassemer-en iritzian, gaur egungo Zuzenbide penalean biktima bigarren mailan dago arrazoi askorengatik, batez ere, Zuzenbide penal modernoak oso aurrerakuntza nabarmena egin duelako, ordaina eskatzen zuen Zuzenbide penala osatu zenetik prebentziozko Zuzenbide penalerantz.

Hassemer-en iritzian kaltearen ordainean oinarritutako Zuzenbide penalean biktima da gunea, izan ere berarengan egin da ordaindu beharreko bidegabeko egin-tza. Beraz, oinarritzko ardatzak iraganari begira daude, kaltearen zenbatekoari, minaren gordintasunari eta egindako kalteari. Hori dela eta, “*delituaren kaltea zigorren kaltearen bidez konpentsatzea proposatu da*”. Zuzenbide penal modernoan, ordea, prebentziorantza doa “*biktima alde batera utzi behar du derrigorrean*”. Amaitzeko, Hassemer-ek dioenez, guk defendatzen dugun biktimaren lekua “*desagertzeaz dago Zuzenbide penal modernoan*”, eta politika kriminal modernoan “*delinkuentea eta biktimaren arteko lotura desagertarazteko joera azaldu da*”. (W. HASSEMER, 1984, 96. or. eta ond.).

Frankfurteko goi-mailako penalistaren iritziarekin ez dator bat, baina beraren argitalpen bikainak miresten ditut eta irakurtzen saiatzen naiz. Duela hainbat hamarkada, edo mendeak izango dira beharbada, gainditu da, zigorra, delituaren kaltea konpentsatzeko bidetzat ulertzea. Bestetik, gaur egungo Zuzenbide penalaren ordainsari-doktrina, biktimei dagozkien eskubideak ematen saiatzen da, baina horrek ez du esan nahi mendekura eta Zuzenbidearen historiaren gainbeherara itzuli behar denik, ez biktimak delinkuente bilakatu behar duenik “*indarkeriari indarkeriarekin, eta delituari delituarekin erantzunez*” (Hassemer, 94. or.), ez gehiegizko zigorrak ezarriz, ezta zigorrekin ere. Biktima askok eskatzen dute indarkeriaz kendu izan zaiena itzultzeko, edo zigor sinbolikoak ezartzea. Zenbait biktimak adiskidetzeta eta benetako prebentzioa bideratzen dituzte. Euskal Herrian biktima bakegileen benetako adibide publiko eta pribatuak ditugu.

Espezialista askoren ustez, eta aski oinarri dute hori baieztatzeko, azken mendeotako dogmatikak eta legeria penalak biktimari “zegokion” errealitate soziala kendu diote –beraren delitua–, bai eta nolabait “zegokion” pertsona bat ere: beraren delinkuentea. Aitzindari izan ziren ausardiaz XX. mende honen erdialdetik honantz, hori adierazten, penalista bikain asko, eta 1973tik *vox populi* da. Nils Christie-k salatu zuen, herri hizkuntza eta hizkuntza zientifikoa adi berean erabiliz.

Bide honetatik, Pierre-Henri Bolle-k esan zuen, (1989) estatu sozial modernoak arreta handia eskaintzen diela ia biktima guztiei, baina larrienak ahanzten dituela. Honako hauei eskaintzen die arreta:

- Laneko biktimak, edota langabeziarenak, segurtasun laboralaren bidez.
- Hondamendi naturalen biktimak, ezbehar komunitario hauetarako arau espezifikoaren bidez.
- Gorputz osotasunean biktima direnak, gizarte segurantzaren bidez, batez ere gaixotasun eta zahartzaro kasuetan.
- Miseriaren biktimak, estatuko, autonomiako edo tokiko gizarte-laguntzarako zerbitzuen bidez.
- Euren buruen biktimak, hau da delinkuenteak. Hauek, presondegietako legeriak babesten ditu herrialde guztietan, Espainian bezala (1979ko Presondegietako Lege Organiko Orokorren 36. artikulua eta ondorengoak, 49. 4.a eta 73 eta ondorengoak).

Hitz bitan esateko, ez teoria, ez legeria, ez jurisprudentzia ere, ez dira behar den beste arduratzen delituen biktimei arreta eskaini, ulertu eta laguntzeko, nahiz eta behar-beharrezkoa izan justiziarik oinarritzeko.

Beharbada, herriaren defendatzaileak ere ez du nabarmendu behar besteko ardurar arlo honetan. Horrela, 1995eko *Urteko Txostenean* 1996ko ekainean Gorteetan aurkeztua, orrialde erdi bi eskaini ziren indarkeria eta terrorismo delituen biktimei (160 eta 304. or.); eta askorentzat harrigarri bada ere, haren iritzian, Gobernuak *bete du funtsean behin eta berriro egindako gomendioa*”.

Erljioen zientzien arloan ere, eta bereziki erlijio katolikoaren arloan, Zuzenbide penalaren oinarritzko gaiak aipatzean, ez zaie eskaintzen ez gutxienezko espazioa ere biktimoi. Esaterako, Johannes Gründel teologoa eta arlo juridiko penalean adituak, *Zigorra eta barkamena* izeneko monografian, *Kristau fedea eta Gizarte Modernoa*

entziklopediaren XIII. Liburukian, ez du hitz bat bera ere esaten kriminalitatearen biktimei buruz. Monografia hau Alemanian kaleratu zen 1981ean biktimologiari buruzko nazioarteko hiru sinposiumak eginda zeudela, Jerusalem (1973), Bostonen (1976) eta Münster-en (1979) hain zuzen, eta ordurako, beraz, kaleratuta zeuden ehundaka argitalpen biktimen eskubideei buruz, beraien delitua eta delinkuentea itzultzeko.

Miriam Herrera Morenok, Kode penal berrian biktimologiak duen lekuari buruzko azterlan zabal bat kaleratu du, Epainian argitara atera den zabalena. *La hora de la víctima. Compendio de Victimología* du izena liburuak eta hamargarren eta azken kapituluan mintzatu da biktimak 1995eko Kode penalean hartzen duen lekuaz eta garrantziaz (325-408 or.). Aurreko Kode penala erreferentziazat hartzen badugu, aipagarriak dira batez ere, Francisco Bueno Arús-en lan biak, bibliografian aipatuak.

Orrialdeon helburua gogoan, ondoren honako hauek izango ditugu mintzagai:

- 3.1. I. Liburuko berrikuntzarik aipagarrienak, eta II. eta III. Liburuetaoak (II. Liburuan biktimologiari buruzko zenbait arlo aipatu dira, baina ez da aipatu ez Atariko Titulua ez I. Liburua ere).
- 3.2. Gainditu beharreko premiazko hutsuneak.
- 3.3. Beharizan-egoera larrian dauden biktimei lagutza ematea (desegoki deituriko eutanasia).

3.1. I. Liburuko Berrikuntzarik Aipagarrienak

“Espainian biktimari dagokion arloa lantzeko dago oraindik, eta horrek oztopoak jartzen dizkio justiziarri, izan ere, hura gabe ez du izateko arrazoirik”.
(J. Urra, *Menores, la transformación de la realidad. Ley Orgánica 46/1992*, 214. or.).

Garrantzi berezia dute I. Liburuan, *“Disposiciones generales sobre los delitos y las faltas, las personas responsables, las penas, medidas de seguridad y demás consecuencias de la infracción penal”* atalean bilduak. Salbuespen batzuk izan ezik, I. Liburu Honen iruzkin doktrinal teoriko eta jurisprudenzialak, hau da, Zuzenbide penaleko tratatu eta liburuak, oso gitxi diote biktimologiari buruz. Espainiatik harago harrera hobea eskaini izan zaie ikuspuntu biktimologikoei unibertsitate mailako liburuetan. 1996an, Jescheck eta Weigand-en *Lehrbuch des strafrechts. Allgemeiner Teil* lanaren 5. edizioan hainbat orrialdetan mintzatu da aipatu gaiak: 16 eta ondorengoetan, 99.ean, 748 eta ondorengoetan, 759 eta ondorengoetan, 769 eta ondorengoetan, 788 eta ondorengoetan, 864 eta ondorengoetan, 887 eta ondorengoetan, 907 eta ondorengoetan.

Ondoren labur labur hitz egingo dugu: A) Ezintasun partikular (erantzukizun penalaren arlokoa) eta ezintasun orokorraren inguruan (giza ekintzen arlokoa) Kode penal berriak bildutako berrikuntza bi; B) Arintzea eta astuntzea eragiten duten hiru suposamendu; C) askatasun-gabetze zigorrak kentzeko edo eteteko baldintza berria; D) Biktima lasterrazleei buruzko arau bi.

A) 19. artikuluko berriak dioenez, “*hamazortzi urte baino gazteagoek ez dute erantzukizun kriminalik izango Kode honen arabera*”. Baliteke erantzukizuna izatea etorkizunean beste legeren batek xedatutakoaren arabera; lege hori gobernuak onartu beharko du eta gero mintzatuko gara berataz.

Kode penala aplikatzeko adin-mugak (aurreko legeriak hamasei urtean ezarri zuena) hainbat arrazoi sendo ditu oinarri. Horietako bat biktimologiaren arlokoa da. Horren arabera, hamazortzi urte egiteko dituzten arau-hausleengan nolabaiteko heldutasun eza eta garapen pertsonal urritasuna nabari da, eta horrek eragozten du Kode penalarik dagokion erantzukizun eremuan sartzea. Ez dute aski maila koantitatiboa eta koantitatiboa zigor-ordainsariaren arloan sartzeko. Helduei dagozkien zigorak aplikatzea gogorregi jotzeko litzateke; faktore kriminogenoei aurre egiteko “ahultasuna” eta “ezintasuna” alde batera uztea litzateke. Beste muturretik begiratuta, helduek baino bergizarteratze gaitasun handiagoa dutela ahanzteko litzateke. Hitz bitan esanda, aktiba eta pasibaz biktimizatzea litzateke.

Beste “ezintasun” mota bat aipatu behar dugu, askoz zabalagoa eta orokorragoa, 25. artikuluko berri garrantzitsuan aipatua. Artikulu horrek dioenez, “*Kode honen arabera ezgai tzat jo da, bere burua edo ondasunak zaintzea eragozten dion gaixotasun iraunkorra duen pertsona, ezintasun hori deklaratu izan zein ez*”. Aurretiazko deklarazioa ez da beharrezkoa eta horrexegatik, hain zuzen, ezintasun horrek autonomia hartu du arlo penalean. Kode zibilean aipatzen den ezintasun zibiletik bereiztu behar da (199. art. eta hur.), izan ere, hemen epai judizialaren bidez deklaratu izatea eskatzen da.

Aurreko Kode penalak pertsona ezgaiak aipatzen zituen II. Liburuan, baina ez III. Liburuan, eta era berean, I. Liburuan ere ez zuen kontzeptu hori aipatzen. Kode penal berriaren kontzeptu horren aipamena egitea aurrerakuntza garrantzitsua da zientzia biktimologikoaren barruan. Horrela biktimizazio asko saihesten dira erro-errotik, izan ere epaileak ezin izango du zigortu arlo penalean, arau-haustea, askatasunez barik, bere ekintzak kontrolatzeko eta haietaz jabetzeko ezintasunaren edo, gaixotasunaren menpe egin duena. Horiek gizakiaren ekintzak dira, baina ez giza ekintzak terminologia klasiko jakintsuaren arabera.

Ezgaitasun horrek aplikazio zehatza du II. eta III. Liburuan, hainbat artikulutan. Beraietaz hitz egingo dugu zauri-delituak eta askatasun sexualaren aurkako delituak aipatzean. Kontuan hartzeko da baita ere faltetan (618, 619 eta 639. art.) eta xedapen gehigarrietarik lehenengoan eta bigarrenean.

B) 21. artikuluko aringarriek dagokienez, 5. zirkunstantziaren idazketa (“*Prozeduraren edozein unetan eta ahozko epaiketa egin aurretik, errudunak berak biktimari egindako kaltea konpondu edo arintzen ahalegintzea*”) gorestekoa da, aurreko kodean dagokion zirkunstantzia aringarriarekin (bederatzigarrena, bederatzigarren artikulukoa) alderatuz, bat-bateko damuan oinarritzen baitzen. Gaur egungo Kodea biktimari egindako kaltearen orainketan datza. Gure ikuspuntutik edukin dogmatikoa askoz hobea da, izan ere biktima hitza sartu eta “hobendatua” ixiltzen du.

Bestetik, Zirkunstantzia astungarri bi gehitu dira, 22. artikuluko 2. eta 4.a; baina ez erantzukizun penala arintzeko edo kentzeko, astungaritzat baino. 22. artikuluan

2. zirkunstantzia astungarriaren idazketan hauxe dino: “*Egintza gauzatzea... irainduaren defentsa ahultzen duten zirkunstantziak aprobetxatuz, hala nola, toki, denbora, eta pertsonen laguntza...*”; beraz, biktimaren babesa sendotu egin da. Izan ere aurreko Kodean artikulua horren parekoan, hau da, hamargarrenean, 8. zirkunstantzian hauxe baino ez zioen: “*defentsa ahultzen duen bitartekoaz baliatzea*”. 22. artikulua horren 4. zirkunstantzian esaten denez, astungarritzat jo da “*delitua arrazakeria arrazoiengatik, arrazoi antisemita edo beste era bateko diskriminazioarengatik egitea: ideologia, biktimaren erlijio edo siniskera, dagokion etnia edo nazioa, sexu edo sexu joera eta jasaten duen gaixotasun edo minusbalia*”.

Egoki dirudi biktimaren berezitasun horiek guztiak bildu izana (arrazistak, erlijiosoak, sexualak, patologikoak edo ezintasun arlokoak) kodearen I. Liburuan, doktrina penalaren arlo orokorrean, hain zuzen II. eta III. Liburuko delitu eta faltei aplikatu dakiekeen zirkunstantzia astungarri gisa. Arrazoi antisemitaren aipamena ere ez da funsgabea; Europako eta Espainiako antzinako historia eta historia modernoari, edo Vatikanoko II. Kontzilioarte herri judua “zitaltzat” jo izan duen liturgia katolikoren historiari begiratzea baino ez dago (A. EKSTERMAN, 1993).

Nazio Batuen dokumentuen argitan, esan beharrekoa da zirkunstantzia astungarri horrek urte asko lehenenago agertu behar zuela kodean. 1963eko azaroaren 20an Nazio Batuek arraza-diskriminazioaren forma guztiak deusezteko deklarazioa egin zuten. Urte bi geroago, abenduaren 21ean dagokion konbentzioa egin zuen eta sinatu eta berresteko eman zuen. 1967ko azaroaren 7an emakumearen aurkako diskriminazioa deusezteko Deklarazioa egin zen, eta 1979ko konbentzioa egin eta sinatu eta berretsi edo hari atxikitzeko eman zen. 1985eko abenduaren 25ean erlijio eta konbikzioetan oinarritutako intolerantzia eta diskriminazio moduak deusezteko Deklarazioa egin zen. 1991ko abenduaren 17an buruko gaixotasuna dutenak babesteko eta buruko osasunaren zaintza hobetzeko printzipioak aldarrikatu ziren. 1992ko abenduaren 18an gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso edo lingsuistikoetakoak babesteko eskubideen Deklarazioa onartu zen.

C) Bereziki aipagarriak dira askatasun-gabetze zigorrak betetzeko modu berriak eta, zehatz mehatz, zigor hauek kendu edo etetea. 81. artikulua hiru garren baldintza aipatu behar dugu hemen. Horren arabera, zigorraren etendura gauzatzeko beharrezkoa da “*sortutako erantzukizun zibilak beteta izatea, salbu eta epaia emango duen epaile edo auzitegiak, interesatu eta ministerio fiskalak esan beharrekoa entzun ondoren, kondenatuak erantzukizun horiei aurre egiteko ezintasun osoa edo partziala duela deklaratu*”.

Eta ez naiz hemen luzatuko esaten zein erraz deklaratu duten auzitegiek, kondenatuak dagokion erantzukizun zibilei aurre egiteko ezintasun osoa duela. Lehenago esan dudanez, nire iritzian, kondenatuak beti egin dezake zerbait bere biktimen alde (naiz eta sinbolikoki bakarrik, eta ez da gutxi). Beraz, kritikagarria da nire iritzian “*interesatuak esan beharrekoak entzun*” adierazpenaren zehazgabetasuna. Biktimologiaren ikuspuntutik, lehentasunezko interesatuak biktimak dira, baina testuak ez dio hori eta esan beharko luke, izan ere zenbait Auzitegiak “kondenatuak” bakarrik jotzen ditu interesatutzat, eta ez biktimak.

D) Oso ekarpen biktimologiko garrantzitsua dugu 114. artikuluan berria: “*Biktimak, bere jokabidearen bidez, jasandako kaltea egiten lagundu izan balu, Epaileek edo Auzitegiek ordainketaren zenbatekoa arindu dezakete*”). Artikulu hau Kode zibilararen 1.103. artikuluan erein erlazioan komentatu behar dugu; hauxe dio: “*arduragabekeriaren ondorio den erantzukizuna, betebeharrak mota guztiak betetzean exigi daiteke berdin-berdin; baina arindu egin dezakete Auzitegiek kasuan-kasuan*”. Bai eta 1995eko abenduaren 11ko Legearen 3. artikuluan erein erlazioan ere. Artikulu horren arabera, “*laguntza publikoa ukatu edo bere zenbatekoa gutxitu liteke, baldin eta oso-osoan zein partzialki ematea, ekitatearen edo ordena publikoaren aurkako balitz*”. Epai bidez deklaratu beharreko zirkunstantzia bi hauek, honakoak dira: “*onuradunak laguntza eman izana, zuzenean nahiz zeharka, delitua egiten edo kalteak larriagotzen, edota onuraduna indarkeria ekintza deliktiboak egiten dituen talde edo organizazioen batekoa izatea*”. Era berean, kontuan hartzekoak dira onuradunak delituaren egilearekin duen harremana.

Logikoaenez, biktima “lasterrazleak”, bere jokabidearen bidez, kaltea egiten lagundu badu, epaileek edo Auzitegiek kaltea zuzendu edo ordaintzeko zenbatekoa arindu dezakete. Baina formula legalak zerbait gehiago zehaztu edo esan beharko luke, izan ere badirudi kaltea zuzendu edo indemnizatzeko ordaina ekonomikoa bakarrik dela beti. Alde honetatik zehaztapen bat egin beharko luke, hain zuzen ere Karl Engisch-ek *Einführung in das juristische Denken* liburuan (1983an argitaratu zen 8. edizioa) azpimarratzen duen bidetik; legezko defentsaren edo premia egoeraren formula tradizionaletan ikus daitekeenez, Kode penalaren 20. artikuluan.

Era berean, beharrezkoa litzateke ziurtasun eta zehaztasun gehiago izatea indarkeria delituen eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimei laguntza emateko legearen 3.a. artikuluan, *laguntza eman izana, zuzenean nahiz zeharka dienezan*.

Gure legegileek, epaileek eta zuzenbide penalaren eta kriminologiako teorikoek oso arreta txikia eskaintzen die biktimei, eta hori horrela izanik kritikatzekoa da kode penalaren 114. artikulua eta laguntza emateko legearen 3. artikulua (1995) Auzitegiei hainbeste aukera ematea kaltearen ordainaren zenbatekoa gutxitzeko. Zalantza izanez gero, biktimei eman behar zaie abantaila eta ez delinkuenteari edo Estatuari.

Zuzenbide konparatuaren zenbait arau ikusita, Espainian biktimek Auzitegi Gorenean errekursoak jartzeko aukera ere izan beharko lukete, baldin eta kaltearen ordainketak edota indemnizazioak altuagoa izan behar duela uste denean, kantitatean zein kalitatean.

Beraz, kode penal berriaren I. Liburuak lekua egin dio doktrina biktimologikoari oso artikuluan garrantzitsuetan, baina ez behar bestetan. Denboraren joanean unibertsitatean, fakultatean eta kriminologia eta biktimologia institutuetan ikerketa gehiago eta hobekia egingo direlakoan gaude, horrela legegileari gure kodea eguneraraziz aipatutako gai garrantzitsu horietan, bereziki, Konstituzioaren bidez, bere burua zuzenbidezko estatu sozialtzat duen honetan.

3.2. Kode Penalaren II. eta III. Liburuetakoko Berrikuntzak

Kode penal berriaren II. eta III. Liburuetan azaltzen diren berrikuntzei dagokienez, (A) zauri-delituak aipatuko ditugu; (B) askatasun sexualaren aurkako delituak aipatuko ditugu, bai eta familia, adin txikikoak edo ezgaiak bertan behera uztea; bai eta (3.3.) duintasunez hiltzeko eskubidea ere, hau da, Zuzenbide penalak oso egoera larrian dauden biktimak babesten dituztenak.

A) III. Tituluan, zauri-delituei buruzkoa, aurreko kodean baino gehiago hartzen da kontuan, 25. artikuluko berriaren ezgaitzat jo diren pertsonen zaurgarritasuna eta babes beharrezkoak handi eta berezia. Ondoko lau artikuluko dira aipagarriak:

– 148.3. Artikulu berri honek astungarri bat sartzen du oinarrizko zauri-delitu tipoarean zigorrean (147. art.: sei hilabete eta hiru urte bitarteko kartzela zigorra): *“biktima hamabi urte baino gazteagoa edo ezgaia balitz, bi eta bost urte bitartekoa izango da kartzela zigorra”*.

– 153. Artikulu honek *“ezkonkidearen aurka edo... berarekin bizi diren edo ahalmen, babes, kuratela edo egitatezko zaintzapean dituen nagusi edo ezgaien aurka indarkeria fisikoa egiten duena”* zigortzen du, sei hilabete eta hiru urte bitarteko kartzela zigorrarekin, *“zauri-emaitzari legozkion zigorren kalterik gabe”*. Aurreko kodeko 425. artikuluan pareko tipoa biltzen zen, baina pertsona eremu murriztagoa hartzen zuen eta zigorra ere txikiagoa zen: hilabete eta egun bat eta sei hilabete bitarteko askatasun gabetzea.

– 155 eta 156. artikuluek eta aurreko kodearen 428. artikulukoak, adin txikiko batek edo ezgai batek emandako adostasunari balioa ukatzen diote, III. Tituluan biltzen diren delitu guztietan.

– 156. artikulukoaren bigarren lerroaldean zigorgabeko beste zauri mota bat aipatzen da: urritasun psikiko larria duen pertsona ezgaia antzutea. Artikulu horren arabera, epaileak antzute hori egiteko baimena eman ahal izateko *“ezgaiaren interesa izango du irizpide zuzentzaile nagusitzat”*. Irizpide honek, Nazio Batuen Konbentzioan, 1989ko azaroaren 20an, Haurren Eskubideei buruz esandakoa dakarkiku gogora. Hauxe dio 3. artikuluan: *“Haurrei dagokienez, gizarte ongi-zateko erakunde publiko zein pribatuek auzitegiek, agintaritzak administratiboek eta lege organoek hartzen dituzten neurrietan, haurraren interesa izango da kontuan gauza guztien gaineratik”*. Gauza bera aldarrikatzen zuen duela hogeita hamar urte, 1959ko abenduaren 20an, Nazio Batuek emandako Haurren Eskubideen Deklarazioaren 7. artikulukoak.

B) Era berean VIII. Tituluan –askatasun sexualaren aurkako delituak– eta familia, adin txikikoak edo ezgaiak bertan behera uzteari buruzko artikuluetan, berrikuntza interesgarriak agertzen dira biktimologiaren ikuspuntutik, nahiz eta ez beharko lirakeen beste.

Horrela, 181, 182, 184 eta 191. artikuluetan sei bider hitz egiten da biktima. Hitz hori ez da azaltzen, ordea, aurreko kode penalean horien pareko artikuluetan (429-452 bis); kode penal horretan *“kaltetutako pertsona”* edo *“iraindutako pertsona”* aipatzen dira. Izen arazo hau ere garrantzi handikoa da

Wittgenstein-ek dioenez *Tractatus Logico-Philosophicus* lanean, 3.22: “*Proposizioan izenak objektu funtzioa egiten du*”. Beraz, izena aldatzean objektua aldatzen da.

Eraso sexualei buruzko lehenengo kapituluak (178-180 artikulua), eta sexu abusuei buruzko bigarrenak (181-183 artikulua) oso kontuan hartzen dute behin eta berriro biktimen zaurtasun gradua. Horixe adierazten dute berariaz 180. artikuluko 3 eta 4. zirkunstantziak eta 182.eko kasu biak. Artikulu biek astuntzen dute zigorra kasu honetan: “*Delitua senidetatsun harremanaz baliatuz egiten denean (izatez nahiz adopzioz, biktimaren aurreko senidea, ondokoa edo anai-arreba)*” eta “*Biktima, bere adina, gaixotasuna edo egoera dela-eta bereziki zaurgarria denean*”.

Astungarria askoz larriagoa da 180.ean 182.ean baino, izan ere oinarritzko erasoaren zigorra (bat eta lau urte bitartekoa) lau eta hamar urte bitarteko kartzela zigorra da. Erasoa haragizko barneratzea, objektuak sartzea edo ahotiko edo uzkitiko barneratzea bada oinarritzko zigorra (sei eta hamabi urte bitartekoa) hamabi eta hamabost urte bitartekoa da. Zigor honek 138. artikuluko hilketa delituaren zigorra gainditzen du beheko mugan: hamar eta hamabost urte bitarteko zigorra.

Zenbait sexu abusutan, 182. artikulua, oinarritzko zigorra (baimenik ez dagoenean lau eta hamar urte bitartekoa, eta bat eta sei urte bitartekoa nagusitasunezko abusua dagoenean) erditik gora jartzera derrigortzen du.

Ikus dezagun ze aipamen egiten den pertsona ezgaietara buruz, delituaren subjektu pasibo edo biktima direnean, I. Liburuaren 25. artikuluari begiraturaz. Pertsona ezinduei buruzkoak dira honako artikulua hauek:

– 185 eta 186: Exhizionismo eta probokazio delituak. Artikulu bi hauek biktimen eremua zabaltzen dute, aurreko kodeko pareko artikuluekin (431 eta 432) alderaturaz. Biktimen eremua adin txikikoetara eta ezgaietara hedatu da.

– 187: prostituzioa. Artikulu honek ezgaiak sartzen ditu biktimen artean, pertsona babestuen eremua zabalduz.

– 229 eta 230: adin txikikoa edo ezgaia bertan behera uztea. Artikulu hauek, era berean, pertsona ezgaiak sartzen dituzte babes eremuan.

– 231: adin txikikoa edo ezgaia gainontzeko baten esku edo establezimendu baten esku uztea.

– 232: adin txikikoak edo ezgaiak erabiltzea edo uztea eskeketasuna praktikatzeko. Aurreko kode penaleko pareko artikulua (498 bis) ez zituen sartzen pertsona ezgaiak.

Labur-labur esateko, Kode penal berriaren II. eta III. Liburuek Biktimologiaren eskakizun aurrerakoi batzuei ireki dizkie ateak, baina berrikuntzarik asko dago oraindik egiteko, izan ere delitugilea da oraindik gunea eta ardatza, eta justizian, *de lege ferenda*, biktimei dagokien leku hori.

3.3. Beharrizan-egoera larrian dauden biktimei lagutza ematea (dese-goki Deituriko Eutanasia)

“Jarduera medikoaren lehen irizpidea eta, beraz, nagusia, hil zorian dagoenaren ona da”.

(K. Demmer, Eutanasia, *Nuevo Diccionario de Teologia Moral*, Madrid, Ed. Paulinas, 1992, 741. or.).

Kode penal berriak, dogmatika, biktimologia eta politika kriminal modernoarentzat oso artikulu interesgarria bildu du: duintasunez hiltzeko eskubidea arautzen duen artikulua, gaur egun sarri izan dena eztabaidagai. Zenbait espezialistaren arabera gai-xotasuna edo mina ez jasateko eskubideak duintasunez hiltzeko eskubidea ematen dio gaixoari. Ez da bidezkoa agintaritzak kalte horiek jasatera behartzea gaixoa, bestela zaindu edo laguntza ematen duenari zigor penala ezarriko zaiola mehatxatuz.

Eutanasia berba saihestu egin behar da ahal dela, izan ere heriotza eragitearekin lotzen da, edo hil edo asasinatzearekin. Ez dago, aldiz, horrelakorik duintasunez hiltzeko arazoan. Duintasunez bizitzen edota hiltzen laguntza ematea da arazoaren gunea, beti ere bizitza duinaren azken unerarte sufrimendua arinduz. Bizitzaren azkenengo une garrantzitsu horri, hau da, heriotzari duintasuna eta gizatasuna ematen ahalegintzea, horixe da helburua.

Lege organikoak eutanasia tipifikatu eta hobendatzen du, baina oso zigor arina jarri, batzuetan sinbolikoa bakarrik, salbu eta profesionalen kasuan. Profesionalei, berrerortzen direnean, ez zaizkie aplikatulo zigorrari dagozkion alternatibak.

Kasu honetan 143. artikuluan 4. zenbakia interesatzen zaigu. Artikulu horrek beste pertsona baten heriotza eragin edo horretan laguntzea tipifikatu eta zigortzen du (Kakoarte honetan, kontuan izan behar dugu Kode penalak ez darabilela “eutanasia” hitza, ez eta “heriotza duina” edo “hiltzen laguntzea” ere. Guk orain izendapen hauek edo antzeko beste batzuk erabiliko ditugu, ez baitugu lekurik azterketa semantikoa egiteko, nahiz eta oso argigarria izango litzatekeen). Zigor testuak hauxe dio: *“Beste baten heriotza eragin edo horretarako beharrezko ekintzak zuzen-zuzenean eginez, aktiboki laguntzen duenak heriotza hori eragiten, biktimaren beraren eskabide serioa eta ezbairik gabea dela bide, biktimak hala-beharrez heriotza dakarren gaixotasuna duelako edo etengabeko pairamen larria eta jasanezina sortzen dion gaixotasuna duelako”...*

Ikusi dugunez hiru eratako delituak aipatu dira:

1. Beste pertsona bati heriotza eragitea, halabeharrez heriotza dakarren gai-xotasun larria duela-eta eskabide hori egin duelako.

2. Beste pertsona bati heriotza eragitea, etengabeko pairamen larria eta jasangaitza sortzen dion gaixotasuna duela-eta eskabide hori egin duelako.

3. Beste pertsona baten heriotza eragiteko beharrezko ekintzak eginez aktiboki esku hartzea, pertsona horrek 1. kasuan bezalako gaixotasun larria duela-eta eskabide hori egin duelako.

4. Beste pertsona baten heriotza eragiteko beharrezko ekintzak eginez aktiboki esku hartzea, pertsona horrek 2. kasuan bezalako gaixotasun larria duela-eta eskabide hori egin duelako.

Lehengo kasu bietan egileak eragin du heriotza, eta azkenengo bietan, ordea, beharrezko ekintzak eginez esku hartu du.

1. eta 3. kasuan gaixotasuna oso larria da eta halabeharrez dakar gaixotasun horrek heriotza; 2. eta 4. kasuan, ordea, gaixotasuna ez da hilkorra, baina eten-gabeko pairamen larri eta jasangaitzak eragiten ditu.

Kasu guztietan ere beharrezko betekizuna da biktimaren berariazko eskabidea, serioa eta ezbairik gabea. Hori dela eta, kodeak ez darabil eutanasia aktiboa adierazpidea errukiz, ez eta antzeko beste batzuk ere, baina legegileak arau-hauste penal gisa tipifikatu nahi izan ditu jokabide zehatz hauek, aurreko kodeetan ez zirenak hartatzat biltzen.

Zigorrari dagokionez, Kode penal berriaren arauak izan behar ditugu kontuan, 61. artikulua eta ondorengoak, guztiak ere oso berritzaileak. 1. eta 3. kasuari dagokionez, Auzitegien arabera eta kasuan kasuko gorabeherak kontuan izanda, gehieneko zigorra sei eta hiru urte bitarteko kartzela zigorra izan daiteke, eta gutxienekoa, hiru urte eta hamazortzi hilabete bitartekoa. Hiru urte eta hamazortzi hilabete bitarteko kartzela, larritasun gutxienekoa da (33.3. artikulua arabera). Hori dela eta, zenbait kasutan kondenatua ez da kartzeleratzen, izan ere, 80.1. artikulua arabera, larritasun gutxieneko zigorrak, zigorraren etendura onesten dute, edota Epailak edo Auzitegiak ezarritako obligazio edo betebeharrak ezar daitezke ordez (83. artikulua).

Delinkuentea delitu berean berrerortzen bada, ezin daiteke eten zigorra (80.1. artikulua). Beraz, tipifikazioa ez da sinbolikoa bakarrik izango beraien lanbidea edota konbikzioak direla-eta berrerortzeko arriskuan daudenentzat.

Logikoa denez, 2. eta 4. kasuetarako zigorra txikiagoa izango da. Aukera asko biltzen ditu: gehienez urte biko askatasun gabetzea eta zigor horren etendurarako ezarritako arauak aplika daitezke; era berean, 83. artikuluko obligazio eta betebeharrak ezar daitezke, esaterako, "*bide-hezkuntza, sexu-hezkuntza eta beste arlo batzuei buruzko prestakuntza programetan, programa laboraletan edo kultur programetan parte hartzea*". 2. eta 4. kasuetan, kartzela zigorra urte bikoa baino laburragoa denean, Epailak edo Auzitegiak asteburuko itxialdia edo isuna ezar dezakete haren ordez (88.1. artikulua).

Espanian Zuzenbide penaleko, kriminologia eta Politika kriminaleko espezialista gehien iritzian, eutanasia aktiboko kasu larriak zigorgabe gera daitezke. Ildo honetatik adierazi dute euren iritzia Politika Kriminalari buruzko Ikerketa Taldeko 97 kideek Kontzientzi Eragozpenari buruzko Adierazpenean, 1993ko azaroaren 5ean Madrilan sinatua eta *Anuario de Derecho Penal* urtekarian kaleratua (1994, 311. or. eta ond.). Zehatzago mintzatu ziren hilabete batzuk lehenago, norbere bizitzaren erabilgarritasunaren aldeko adierazpena sinatu zuten 77 lagunek (Madril, 1993ko ekainaren 26a. Cfr. *Cuadernos de Política Criminal*, 1994, 865. or. eta ond.).

Carlos M^a Romeo Casabona Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrako zuzendaria, Zuzenbide Penaleko katedraduna eta Medizinan doktorea da eta honen iritzian (1994, 489. or.) Kode penal berriaren planteamendua egokia da orokorrean (baina katedraduna 1992ko proiektuaz ari da, arazo honetan erabateko adostasuna azaltzen baitu).

Nazioarteko jurisprudentziak aurreko urteetako irizpideak barik guztiz bestelakoak darabilz. Gaur egungo auzitegiek ez lukete aldarrikatuko epai batean, 1954an Alemaniako Auzitegi Federalak idatzi zuena: “*Lege moralak erabat gaitzesten du suizidioa –salbu eta muturreko salbuespenak–, inor ezin baitaiteke bere bizitzaz baliatu eta bere burua hil*” (*Entscheidungen des bundesgerichtshof in Strafsachen*, 6. Liburukia, 153).

Epailleek eta legegile penalek kontuan izan behar dituzte eta onartu doktrina berriak, hain zuzen ere lehenago kriminalizat jo eta gaitzesten ziren jokabide askok izan dezakeen zentzu positiboari (gehiago edo gutxiago) buruzko doktrina berriak.

Pautick Baudry soziologo frantsesak “Suizidioari buruzko datu berriak” artikulua kaleratu zuen *Concilium* aldizkarian (1985, 315. or. eta ond.), eta bertan esan zuenez, eutanasia deitzen den ekintzak, batzuetan, “ez du adierazten maitasun beharrezana bakarrik, nahiz eta hala esan daitekeen zehazgabetasunez eta ezjakintasunez. Harremanen arteko ordena berdefinitzeko deia da”. Hori dela eta horrelako ekintzak gogaikarriak izan daitezke edo eragozpenak sor ditzakete, izan ere, lotura sozial eta egitura komunitario bidezkoagoen berrezarpena aldarrikatzeko deia dira.

3.4. Premiaz Gainditu Beharreko Hutsuneak

Oinarri-oinarrizko hutsune bat dago Kode penaleko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren Atariko Tituluan eta arrazoien azalpenean. Hiru Liburuetako hainbat kapitulutan eta xedapen gehigarri eta aldi baterako xedapenetan ez dira biktimak aipatzen, ezta apirilaren 26ko 690/1996 Errege Dekretuan eta presondegi legeria eta praxisean ere.

3.4.1. Kode Penala

“Erantzukizun zibil subsidiarioaren eragozpen larria ere hor dago oraindik”.

Enrique Ruiz Vellido, *Victimología* 13. zk., Centro de Asistencia a la Víctima, Cordoba, (Argentina), 1995, 7. or.

Akatsik larrienak Arrazoien Azalpenean eta Atariko Tituluan daude, baina horrez gain badaude baita ere hutsuneak eta oso nabarmenak hiru liburuen titulu batzuetan.

Kode penaleko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren Arrazoien Azalpenak (azaroaren 24ko EAO, 281. zk.) –hain zuzen ere legegileak idatzia, Gobernuak egin eta Ganbaran eztabaidatu ondoren onetsi den Kode penalaren irizpide eta eduki berriak nabarmendu eta justifikatzeko– ez dio hitz bat bera ere espezialista eta biktimologo askoren iritzian legegileak berak eraberritu eta bikaintasunez aldarrikatu beharko lukeenari buruz: nor den eremu juridiko penalaren gunea eta nor babesten duen, nortzuk diren biktimak –gutxi gorabehera zuzenak– eta zein den berauen eskubideen babes espezifikoa. Ez du esaten, beraz, Kode penalak ezinbestez bildu beharko lukeela biktima eta kaltegiea birsortzeko zigorraren kontzeptu eta edukin berria, doktrinak landu eta behin eta berriro eskatu duena, hain zuzen. Doktrina horrek, logikoa denez, “zigor” hitza saihesten du, baina ez gure

kodeak. Laster itzuliko gara gaira, oso garrantzitsua baita kodean eta presondegi sisteman.

Hutsune eta akats handiagoa dugu, ostera, Atariko Titulu berrian. Hirugarren milurteko Kode penalaren Atariko Tituluan hiru kontzeptu nagusik agertu behar dute, gurean ez daudenak, hain zuzen:

- Delitu eta falten biktimei buruzko azalpen bat.
- Zein den zigor penal birtualaren izen, kontzeptu eta edukin berria (ezinbestean berria).
- Zeintzuk dira biktimen inguruan egin beharreko oinarrizko zuzenketak eta ardatz nagusiak.

Doktrina biktimologikoaren arabera biktimek arreta berezia merezi dabe eta zenbait zuzenketa egin behar dira arlo horretan, justiziaz jokatu nahi bada gauza guztien gainera. Eta "gauza guztien gainera" esan dut, izan ere, kaltegileei edo falta edo delituaren egile kondenatuei barik biktimei eskeini behar diete lehenasuna erantzun eta zigor penalek.

Atariko Tituluak, aldiz, ez du aipatu ere egiten. Nozioa bera eta deskripzioa ixiltzen du, eta ez ditu aipatzen biktimologiaren euskarri diren eta kode penalaren ardatz izan behar luketen habe biak: biktimak eta zigor birsortzailea. Ez ditu behin ere aipatu biktimak. Eta ixiltze hori askoz deigarriagoa da zenbait kapitulutan. Esaterako, 2.2. atalean atzeranzko eragina izan dezaketen lege berriez hitz egiten du eta beti kaltegilea edo erruztatua aipatuz; baina errudunak aipatzean biktimak ere aipatu beharko litzuzke, izan ere, sarritan, zenbait arauk izan dezaketen ondorio horiek biktimei eragin diezaiekete, inoiz errudunari baino gehiago. Ezin dezake inork frogatu justiziazko eta gizatasunezko arrazoi sendoen bidez, kode penalak, justiziak edota botere judizialak errudunaren aldeko izan behar dutela, beronen biktimen gainera.

I., II. eta III. Liburuetako zenbait kapitulutan azaltzen diren hutsuneak ere bete beharra dago. Hemen lekuri ez dugunez, I. Liburuko artikulua batzuk bakarrik aipatuko ditugu. 32. artikulua arabera zigor guztiek (isunaaz gain) kentzen dute askatasuna edota eskubideren bat. Komunitatearen aldeko lanak ere eskubide murriztailezat hartzen dira, 39. artikulua arabera. Ez da azaltzen zigorraren kontzeptua gauza positibo gisa, biktimaren aldeko edo kondenatuen aldeko kontzeptu gisa.

Beste lau artikulutan kondenatuaren arrisku kriminalaz hitz egin da (6.1, 78, 80 eta 97.a). Suposamendu horiek hutsune nabarmena dute, izan ere ez diete lehenasunik ematen biktima eta egilearen arteko harremanari. Askoz larriagoa da 80. artikuluko hutsunea gairatzea; hauxe esan beharko luke: "*Epaile eta Auzitegiek askatasun gabetze zigorrak eten ditzakete arrazoitutako erabaki bidez, gabetze hori urte biko baino laburrago denean, egilea eta biktimen arteko harremanean eta egile horren arrisku kriminalean oinarrituz*".

Beste zenbait artikulutan ere nabari da hutsune hori, esaterako, askatasun gabetze zigorraren etendurari buruzkoetan. 83.5. artikulua zigortuaren birgaitze sozialaz hitz egin beharko zukeen. 83. artikulua honek, gainera, seigarren puntu bat falta

du; hauxe esan beharko luke: “*Epaileak edo Auzitegiak obligazio edo betebeharrak ezarriko dizkio delinkuenteari biktimei arreta handiagoa edota ordainketa hobe eskaintzeko*”.

III. Tituluko III. Kapituluaren lehenengo sekzioak askatasun gabetze zigorren etendura arautzen du, eta kondenatuari buruzko artikuluko guztiek edo ia guztiek alde batera utzi dute biktima. Horrela, 81.3, 86 eta 87. artikuluetan interesatuei eta alderdiei entzun beharra azpimarratzen da, baina biktimei entzun beharra ere azpimarratu beharko lukete. 87.2. artikulua arabera, Epaileek eta Auzitegiek egintzaren eta egilearen inguruko zirkunstantziak hartu beharko lituzkete kontuan, baina, era berean, biktimen inguruko gora-beherak kontuan izatea ere eskatu beharko luke. Eta 88.1. artikulua bigarren lerroaldean ere horixe bera aplikatu behar da, delinkuentearen prebentzio eta bergizarteratze helburuak ez zapuzteko xedea azpimarratzen duenean hain zuzen, izan ere biktimek ere behar dituzte prebentzio eta bergizarteratze neurriak.

Gutiz premiazkoa da 90. artikulua eta ondorengoek –*baldintzapeko askatasunari buruzkoak*–, 101.ak eta ondorengoek, –*segurtasun neurrien aplikazioari buruzkoak*–, eta 109.ak eta ondorengoek, –*delitu eta faltan erantzukizun zibilari buruzkoak*–, seriotasunez aldarrikatzea delituaren egilearen eta biktimaren artean nolabaiteko harremana behar dela, hain zuzen ere harreman ordaintzaile eta birtualizatazaila, ahal denik eta eragingarriena. Leku falta dela eta, 109.1. artikulua formulazio berriaren proposamena baino ez dut jarriko hemen: “*Legeak delitu edo faltatza duen egintza egiteak, biktimei arreta eta zaintza osoa emateko derrigortasuna dakar, eta aurreikusitako moduan konpondu beharko da...*”. Badakigu artikuluko horiek aparteko arintasunaz egin, idatzi eta eztabaidatu zirela, eta horrek bakarrik azal dezake biktimaren aipamenik ez egitea.

Artikulu hauek berehala berriztatzea nahi dugu eta, aldi berean, beharrezkotzat jo dugu, artikuluan aplikazio praktikoa eragingarria ahalbidetzeko baliabide materialak eta langileak jartzeko beharrezko aurrekontu dotazioa egitea.

Kode penalaren berrikuntzen artean egokienetarikoa izango da, beharbada, 49. artikulua bildu zuen zigor berria. Baina ez ditu nahikoa kontuan hartzen biktimak. Hauxe dio: “*Komunitatearen aldeko lanek ezin izango dira ezarri zigortuaren baimenik gabe, zenbait jardueratan ordain gabeko lankidetzak eskaintzeko derrigortasuna jartzen diote. Ezin daitezke egin jarduera horretan egunean zortzi ordu baino gehiago...*”. Legeria osagarriak ere hutsune handiak ditu. Kode penal berria indarrean ezarri aurretik ere, apirilaren 26ko 690/1996 Errege Dekretuak ezarri zituen *komunitatearen aldeko lanak eta asteburuko atxiloketa zigorrek betetzeko garabeherak* (maiatzaren 17ko EAO, 120. zk.; errakuntzen zuzenketa abuztuaren 2ko EAO, 186. zk.). 49. artikulua eta honi dagokion Errege Dekretuak gutiz ahaztu dute biktimaren aipamena egitea.

49. artikulua honetan gure legegileak ez ditu biktimak aipatzen. Ezartzen dituen baldintzei dagokienez, biktimak izan behar lituzke baldintza horien ardatz, eta zalantzarik izanez gero, biktimak izan beharko liriteke komunitatearen eta zigortuaren gainetik.

Azken hogeita bost urtetan hainbat eta hainbat ikerketa kaleratu izan dira, kondenatuak iraindu edota kaltetu dituen biktimen aldeko lana egitea eskatuz, baina ez

dira ikerlanok kontuan hartu. Oraindik ere delitua erruztatu eta komunitate-agintaritzaren arteko binomiotzat hartzen da; funtsezko oinarri ordezkazina duen triangelu birtuala dela ahaztu du, eta oinarri hori biktimak edo biktimek osatzen dutela.

690/1996 Errege Dekretuan azaldu ez diren funtsezko aipamenak azpimarratuko ditugu. 1. zenbakiak, *kontzeptuari buruzkoa*, berariaz azaldu beharko luke lanak edo lankidetzaren pertsonalaren prestazioak “*legez kanpoko jokabideak kalteu dituen biktima zuzen eta bitartekoen ordainketan oinarritu behar duela*”...

Lanpostuen zehaztapenari buruzkoa da bigarren zenbakia; zenbaki honek zera eskatu beharko luke: hitzarmenik edo plazarik izan ezean biktimek (eta zigortuak) lan jakin bat proposatu ahal izango dutela... Auzitegiari txosten bat egin behar zaiola ezartzean ondokoa zehaztu beharko luke: lehenengo eta behin biktimek formulatu behar dute txosten hori, eta presondegietakoa administrazioek ondoren, eskeinirako proposamena aztertu ondoren.

Elkarrizketa ta lanaren hautaketari dagokionean, 4. zenbakiak dienez, presondegietakoa gizarte zerbitzuek, zigortuari egin behar diote elkarrizketa lehenengo eta behin, bere ezaugarri pertsonalak, lan gaitasuna, eta inguru sozial, pertsonal eta familiarra ezagutzeko; baina biktimak ere elkarrizketatu beharko lituzke zerbitzu horrek. Izan ere hauexek jasan dute kaltea.

Lan jardunaldia, ordutegia eta ordainketei dagokionean, ondo dago zigortuaren “*karga pertsonal eta familiarrak*” kontuan hartzea, baina biktimen kargak izan beharko lirateke kontuan batez ere. Biktimek ere eskuhartu beharko lukete 6. zenbakiak aipatzen duen kontrol eta segimenduan, eta beraiei eman behar zaie azken dokumentua, 7. eta 10. zenbakiak eskatzen dutenaren antzekoa.

Arrazioen Azalpenean, Atariko Tituluan eta Kodearen kapitulu askotan biktimei buruzko garrantzizko aipamenak utzi dira egin gabe, esaterako, askatasun gabetze zigorren etendurarako betekizunak arautzean, zigortuaren gaitze sozialari buruzko zehaztapenetan, baldintzapeko askatasuna lortzeko betekizunak arautzean, erantzukizun zibila arautzean, komunitatearen aldeko lanaz hitz egitean (edo hobeto esanda, biktimen alde), etab.

Presondegien arloan sartu aurretik, berriro esango dugu hemen Kodeak “*zigor*” hitza ezabatu beharko lukeela bere artikuluetatik. Inoiz ez da erabili behar termino zaharkitu hau, erdi aroaren aurretiko mendekuzko pentsakeraren isladapen dena hain zuzen.

Dudan indar guztiarekin aldarrikatuko dut, eta helduei adieraziko diet oraingoan, duela denboratxo bat gaztetxoagoei adierazitakoa.

UTIKAN ZIGORRAK!

Ez du inork inoiz
zure haurrik zigortuko.
Inork inoiz.
Higuin lazgarria,
holokausto mingarria
litzateke.

Ez du inork inoiz,
 ezta Jainkoak bere guztian ere,
 zure haurrik makilduko.
 Haserre zaite
 berarekin. Bai, baina
 bere hortan onartzen duzun
 neurrian.

Zure haurra,
 –bihitegi
 izkutu,
 elbarra,
 elurpeko ur hotza–
 ernetzen den neurrian
 loratzen da
 zure begi-ninian.

Gure Kodeak “zigorra” eta “zigortu” hitzak darabiltza oraindik ere, Atariko Tituluan, lehengo eta bigarren arikuletan, eta hiru bider zortzigarren artikuluan. Hiru Liburuek aipatzen dituzte behin eta berriro hitz zaharkitu horiek, erdi aroko zuzenbide penal primitiboan giltzarri zirenak, hain zuzen. Kondenatuari, beraz, kalte mingarri eta gaitza eginez erantzun behar zaio, ekintza kaltegarriaren mendekuzko ondorio gisa, *malum passionis propter malum actionis* (Boecio, Erroma 480 – Pavia 525). Hirugarren milurtekoaren atarian gaudela, Kode penalak zigor barik erantzun behar dio biktimizazioari, kaltegileak egin duen kaltearen kontzientzia har dezan eta kalte horretaz jabetu dadin ahalbidetu behar da; kaltegileak ahal duena egin behar du biktima birpertsionalizatu eta bera ere birpertsionalizatzeko, adiskidetzeko eta anaitasunezko elkarbizitza bideratzeko.

3.4.2. Presondegia Legeria eta Praxisa

Hain laudatua izan den irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoak, presondegiei buruzko lege orokorrak, ez ditu ezertarako biktimak aipatzen, ezta maiatzaren 25ean indarrean sartu zen Presondegia Araudi berriak ere, otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuaren bidez onartuak (arrazoien azalpenean ere ez da inolako aipamenik egiten).

Hutsune horiek bete beharra dago, eta ez bakarrik kartzelako mundu penagarrian izan behar den giza printzipioagatik bakarrik. Berehala zuzendu behar dira, gutxienez, Legearen 46. artikulua eta Araudiaren 263-264 artikuluek aipatzen dituzten ordainsarien atala.

46. artikuluan presoak biktimekin duen jarrera eta jokabidea kontuan hartuko duen esaldiren bat sar daiteke. Esaterako, “*Norberaren jokabidean eta establezimenduan antolatutako jardueretan jarrera ona, lan izpiritua eta erantzukizuna (batez ere bere biktimei dagokienean) agerian jartzen duten ekintzak saritu egingo dira arauz ezarritako ordainsari-sistema batez*”. Araudiari dagokionez, nahikoa izango da esaldi hori bera sartzea 263. artikuluan.

Zaintza Epailak eta Zentroko Disziplina Batzordea baino garrantzitsuagoa eta eraginkorragoa izango da. Batzorde horrek, Araudiko II. kapituluak aipatzen dituen organo kolegiatu gehienek bezala, arreta handiagoa jarriko luke biktimetan, baldin eta beronen kideen artean *kriminologo* bat izango balitz (hala izan beharko luke), 1981eko Presondegi Araudiak, 281. artikuluan, Jurista-Kriminologoei buruzkoan, ezartzen zuen bezalako zerbait.

Kontuan izan beharko da baita ere, presoak bere biktimekin duen jokabidea, Araudiko 202-206 artikuluek aipatutako onurak ematerakoan.

4. POLIZIA, BIKTIMA ETA HERRITARREN ZERBITZARI ETA LAGUN?

Aurreko orrialdeetan adierazitakoaren osagarri gisa, badirudi egokia litzatekeela herritarrek polizia nola hartzen duten ikustea. Gorabehera hau Alemanian aztertu dute oraintsu (U. DÖRMANN, 1996, 26, 27, 28 29. or.)

1994ko udazkenean, Wiesbaden-eko Polizi Bulego Federalak (*Bundeskriminalamt*) 1991n hasitako ikerketari ekin zion. Guretzako emaitzarik adierazgarrienak ondoko tauletan agertzen dira:

1. taula: POLIZIA GEHIENAK ADEITSUAK ETA ADIKORRAK DIRA OROKORREAN (Ekialdea)

Iritzia (inkestatuena %tan)	1990		1991	1994
	Bateratu baina lehen	Bateratu ondoren		
(1) Erabat ados	11	24	16	21
(2) Nahikoa ados	30	55	54	56
(3) Nahikoa kontra	42	17	25	18
(4) Erabat kontra	17	3	3	4
Batez bestekoa (1)etik (4)ra	2,7	2	2,1	2
Guztira	4.999	4.999	4.600	2.034

Ekialdeko Alemanian 1989ko azaroan Berlineko harresia bota eta batera etorritako aldaketa politikoaren ondorioz poliziaren estimuak gora egin zuen nabarmenki. Baina estimu horrek 1991n behera egin zuen apur bat. Dena den, 1994an berriro ere gorantz joan zen eta ia-ia 1990eko maila lortu zuen. Alemaniako

Errepublikan Federalean (mendebaldeko aldean), 1990ean, polizia gehiago hartzen zuten lagun gisa ekialdeko aldean baino, baina 1994an pertzepzio parekatu egin zen.

2. taulan agertzen denez, 1994an, 35 urtetik beherako gizonak ziren kritikoenak polizi-“lagun” pertzepzio horri dagokionez, eta 35 urtetik gorakoek, gehienbat, polizia laguntzat hartzen zuten; emakumeek arean gutxiago estimatzen dute.

2. Taula: POLIZIA GEHIENAK ADEITSUAK ETA ADIKORRAK DIRA OROKORREAN (Mendebaldean)

Iritzia (inkestaturen %tan)	1990	1994
(1) Erabat ados	30	28
(2) Nahikoa ados	53	56
(3) Nahikoa kontra	15	14
(4) Erabat kontra	2	2
Batez bestekoa (1)etik (4)ra	1,9	1,9
Guztira	2.027	1.994

“Polizia zure lagun eta zerbitzaria al da?” galderari, 1994an, Mendebaldeko zatian, %75ek baietz zioten, eta ekialdean, 1990 baino lehenago, %32k bakarrik, eta 1994an, %64raino igo zuen kopuru horrek, ondoko tauletan azaltzen denez:

3. Taula: HERRITARREN BALORAZIOA POLIZIEN ADEIKORTASUNARI BURUZ (Alemania bateratua 1994)
-INKESTATUEN ADIN ETA SEXUAREN ARABERA-

Iritzia (inkestaturen %tan)	Sexua		Adina	
	Gizonezkoa	emakumezkoa	35 urtetik gora	35 urtetik behera
(1) Erabat ados	24	28	14	33
(2) Nahikoa ados	55	58	61	54
(3) Nahikoa kontra	17	12	21	11
(4) Erabat kontra	3	1	3	2
Batez bestekoa (1)etik (4)ra	2	1,9	2,1	1,8
Guztira	1.915	2.115	1.342	2.688

4. Taula:POLIZIA ZURE LAGUNA DA ETA LAGUNDU EGITEN DIZU

Iritzia (inkestatuen %tan)	Ekialdea			Mendebaldea	
	1990 Bateratu baino lehen	1990 Bateratu ondoren	1994	1990	1994
(1) Erabat ados	7	11	15	22	23
(2) Nahikoa ados	25	48	44	53	50
(3) Kontra	43	34	32	20	22
(4) Erabat kontra	25	8	8	4	4
Batez bestekoa (1)etik (4)ra	2,9	2,4	2,3	2,1	2,1
Guztira	4.999	4.999	2.034	2.027	1.994

Alemaniano ikerketa hauei dagokienez, Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen II. kapituluako 33. artikulua (*Kode deontologikoa*) honako hau dio: “*Euskal Poliziaren kideek, zerbitzutik kanpo ere, legea eta herritarren segurtasuna defendatzeko esku hartu beharko dute beti, eta lagundu egin beharko dute istripuetan eta ezbehar publiko edo partikularretan*”.

Ertzaintzaren kode deontologiko hau komentatzean, Jose Luis Yanguasek ertzaina “*zerbitzari publiko*” eta herritarrari laguntzen dion “*babesle*” gisa definitu du (J.L. YANGUAS, 1990, 45. or.). Honako hau gehitu daiteke: “... *eta batez ere biktimei*”.

Zentzu bera aurkitzen dugu Kriminologiako Euskal Institutuan *bitartekaritza-ri* buruz une honetan burutzen ari diren hainbat doktoretza tesiren kapitulu garrantzitsuetan. Bertan mezu hau ikus daiteke polizientzat: kontuan izan biktimologoen zure betiko eginkizun jatorraz gain (*zenbaitek ez dute eginkizun hori ezagutzen, izan ere, Donostiako Udalak argitaratutako 1997ko agendan, honako hau agertzen da: “Nahiago ditut katuak txakurrak baino, ez dago polizi katurik eta”*), eginkizun berria eman nahi dizutela: bitartekoa, bakegilea, adiskidetzaila.

5. AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Luis ARROYO ZAPATERO (1996), “*Sociedades secretas y Derecho penal*”, en J. A. Ferrer Benimeli (Comp.), *La Masonería en la España del siglo XX. VII Symposium Internacional de Historia de la Masonería Española*, Toledo, Tomo I, pp. 3-13.

- M. Cherif BASSIOUNI (1988), "Introduction to the United Nations Resolution and Declaration of Basic Principles of Justice for Victims of Crime and Abuse of Power", en Idem (Comp.), *International Protection of Victims*, monográfico de *Nouvelles Etudes pénales*, núm. 7, Association Internationale de Droit pénal, Ed. Erès, pp. 17 ss.
- Antonio BERISTAIN (1987), "La justice et l'assistance aux victimes. A propos de l'élaboration d'une déclaration par les Nations Unies", *Revue internationale de Criminologie et de Police technique*, pp. 331-342.
- (1990), "La Victimología creadora de nuevos Derechos Humanos", en A. Beristain, J.L. de la Cuesta (Comps.), *Victimología*, VIII Cursos de Verano en San Sebastián, I Cursos Europeos, Universidad del País Vasco, San Sebastián, pp. 205-228.
- Pierre-Henri BOLLE (1989), "Le sort de la victime des actes de violence criminels en Droit pénal suisse: De l'enfer au paradis", en J.L. de la Cuesta, I. Dendaluz, E. Echeburúa (Comps.), *Criminología y Derecho penal al servicio de la persona. Libro-Homenaje al Profesor Antonio Beristain*, Instituto Vasco de Criminología, San Sebastián, pp. 53-64.
- Uwe DÖRMANN (1996), *Wie sicher fühlen sich die Deutschen?*, Bundeskriminalamt, Band 40, Wiesbaden.
- Frieder DÜNKEL (1990), "Fundamentos victimológicos generales de la relación entre víctima y autor en Derecho penal", en A. Beristain, J.L. de la Cuesta (Comps.), *Victimología*, ..., pp. 159-182.
- Abram EKSTERMAN (1993), "Antisemitismo: Uma Aproximação Psicanalítica", en Ester Kosovski (Comp.), *Vitimologia: Enfoque interdisciplinar*, Sociedade Brasileira de Vitimologia, World Society of Victimology, Universidade Federal do Rio de Janeiro, Rio de Janeiro, pp. 106-116.
- Winfried HASSEMER (1984), *Fundamentos del Derecho penal*, traducción y notas de Francisco Muñoz Conde y Luis Arroyo Zapatero, Bosch, Barcelona.
- Myriam HERRERA MORENO (1996), *La hora de la víctima. Compendio de Victimología*, Edersa, Madrid.
- Louk HULSMAN, Jacqueline BERNAT DE CELIS (1982), *Peines perdues. Le système pénal en question*, Le Centurion, París.
- (1984), *Sistema penal y seguridad ciudadana: hacia una alternativa*, traducción de Sergio Politoff, Ariel, Barcelona.
- Günther KAISER (1991), "Victim-Related Research at the Max-Planck-Institute. Points of Departure, Issues and Problems", en G. Kaiser, H. Kury, H.-J. Albrecht (Comps.), *Victims and Criminal Justice. Victimological Research: Stocktaking and Prospects*, Vol. 50, Freiburg i. Br., pp. 3-17.
- (1996), *Kriminologie. Ein Lehrbuch*, 3ª edic., C.F. Müller, Heidelberg.
- Gerardo LANDROVE (1990), *Victimología*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- Eliás NEUMAN (1994), *Victimología. El rol de la víctima en los delitos convencionales y no convencionales*, 2ª edición, reestructurada y ampliada, Universidad, Buenos Aires.
- Carlos M^º ROMEO CASABONA (1994), *El derecho a la vida y la bioética ante los límites de la vida humana*, Ed. R. Areces, Madrid.
- Hartmut SCHELLHOSS (1993), "Funktionen der Kriminalität", en G. Kaiser, F. Sack y H. Schellhoss (Comps.), *Kleines Kriminologisches Wörterbuch*, 3ª edición, C.F. Müller, Heidelberg, pp. 152-156.

- José Ignacio ULLIBARRI (1994), "Aportaciones para una Deontología profesional del criminólogo", *Harlax. Revista Técnica del Ertzaina*, núm. 8, Departamento de Interior, Gobierno Vasco, pp. 159-169.
- José Luis YANGUAS (1990), "Código deontológico de la Ertzaintza (Apuntes para una interpretación práctica)", *Harlax. Revista Técnica del Ertzaina*, núm. 1, Departamento de Interior, Gobierno Vasco, pp. 42-47.

6. BIBLIOGRAFIA

- Andreas ANTER (1994), *Max Webers Theorie des modernen Staates. Herkunft, Struktur un Bedeutung*, monográfico de *Beiträge zur Politischen Wissenschaft*, Band 82, Duncker & Humblot, Berlin.
- M. Cherif BASSIOUNI (Comp.) (1988), *International Protection of Victims*, monográfico de *Nouvelles Etudes Pénales*, Association Internationale de Droit Pénal, Ed. Erès.
- Amaya BERANOAGUIRRE (1991), "Biktimologia: bizipen traumatikoak eta poliziaren partehartzea - Victimología: vivencias traumáticas e intervención policial", *Harlax. Revista Técnica del Ertzaina*, núm. 3-4, Dpto. de Interior, Gobierno Vasco, 1991, pp. 182 ss.
- Antonio BERISTAIN (1984), "Derechos humanos de las víctimas del delito. Especial consideración de los torturados y aterrorizados", en *Estudos em homenagem ao Prof. Doutor Eduardo Correia*, número especial del *Boletim da Faculdade de Direito*, Universidade de Coimbra, pp. 195-258.
- IDEM (1987), *Presondegiaik, Gazteen gaizkintza, drogak*, Gero, Mensajero, Bilbao.
- IDEM (1993), "Un derecho de la víctima: el proceso en conviction-sentencing", en W. Küper, J. Welp (Comps.), *Beiträge zur Rechtswissenschaft. Festschrift für W. Stree und J. Wessels zum 70. Geburtstag*, C.F. Müller Juristischer, Heidelberg, pp. 653-662.
- Antonio BERISTAIN, José Luis de la CUESTA (Comps.) (1990), *Victimología*, VIII Cursos de Verano en San Sebastián, I Cursos Europeos, Universidad del País Vasco, San Sebastián.
- Roque de BRITO ALVES (1993), "A vitima de crime sexual", en Ester Kosovski (Comp.), *Vitimologia: Enfoque interdisciplinar*, Sociedade Brasileira de Vitimologia, World Society of Victimology, Universidade Federal do Rio de Janeiro, Rio de Janeiro, pp. 361-380.
- Francisco BUENO ARUS (1990), "La atención a la víctima del delito", *Actualidad Penal*, núm. 27, julio 1990, pp. 297 ss.
- IDEM, (1994), "Panorama moderno de la pena de prisión", *Boletim da Faculdade de Direito*, Vol. LXX, Univ. de Coimbra, pp. 247 ss.
- Juan BUSTOS y Elena LARRAURI (1993), *Victimología: presente e futuro*, PPU, Barcelona.
- José Luis de la CUESTA (1993), "Alternativas a las penas cortas privativas de libertad en el Proyecto de 1992", *Homenaje a J. del Rosal*, Madrid, pp. 319-345.
- Nils CHRISTIE (1981), "Conflicts as property", en *Perspectives on Crime Victims*, Gallaway A. Hudson, St. Louis.
- Sarah Ben DAVID, Gerd Ferdinand KIRCHHOFF (Comps.) (1992), *International Faces of Victimology*, WSV Publishing, Mönchengladbach.

- Miguel Angel DIEZ RAMOS (1996), "Seguridad ciudadana, victimización y opinión pública", *Ciencia Policial* (Estudios), núm. 37, julio-agosto 1996, pp. 25 ss.
- José Luis DIEZ RIPOLLES y OTROS (1996), *Delincuencia y víctimas (Encuestas de victimización en Málaga)*, Instituto Andaluz Interuniversitario, Tirant lo Blanch, Valencia.
- Uwe DÖRMANN (1996), *Wie sicher fühlen sich die Deutschen?*, Bundeskriminalamt, Band 40, Wiesbaden.
- Frieder DÜNKEL (1990), "Fundamentos victimológicos generales de la relación entre víctima y autor en Derecho penal", en A. Beristain, J.L. de la Cuesta (Comps.), *Victimología*, VIII Cursos de Verano en San Sebastián, I Cursos Europeos, Universidad del País Vasco, San Sebastián, pp. 159-182.
- Abram EKSTERMAN (1993), "Antisemitismo: Uma Aproximação Psicanalítica", en Ester Kosovski (Comp.), *Vitimologia: Enfoque interdisciplinar*, Sociedade Brasileira de Vitimologia, World Society of Victimology, Universidade Federal do Rio de Janeiro, pp. 106-116.
- Antonio GARCIA-PABLOS de MOLINA (1992), *Criminología*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- Antonio GIMENEZ PERICAS (1993), "La Victimodogmática", *La Victimología*, monográfico de *Cuadernos de Derecho Judicial*, XV, Consejo General del Poder Judicial, Madrid, pp. 381-396.
- Esther GIMENEZ-SALINAS (1993), "La conciliación víctima-delincuente: hacia un Derecho penal reparador", *La Victimología*, monográfico de *Cuadernos de Derecho Judicial*, XV, ..., pp. 345-366.
- Fely GONZALEZ VIDOSA, Luis F. de JORGE MESAS (1993), "Derechos de las víctimas y de los delincuentes", en Ester Kosovski (Comp.), *Vitimologia: Enfoque interdisciplinar*, Sociedade Brasileira de Vitimologia, World Society of Victimology, Universidade Federal do Rio de Janeiro, Rio de Janeiro, pp. 149-180.
- Winfried HASSEMER (1984), *Fundamentos del Derecho penal*, traducción y notas de Francisco Muñoz Conde y Luis Arroyo Zapatero, Bosch, Barcelona.
- IDEM (1990), "Consideraciones sobre la víctima del delito", *Anuario de Derecho Penal*, enero-abril 1990, pp. 241 ss.
- Myriam HERRERA MORENO (1996), *La hora de la víctima. Compendio de Victimología*, Edersa, Madrid.
- Hans-Joachim HIRSCH (1990), "La posición del ofendido en el Derecho penal y en el Derecho procesal penal", *Cuadernos de Política Criminal*, núm. 42, pp. 561 ss.
- Hans-Heinrich JESCHECK, Thomas WEIGEND (1996), *Lehrbuch des Strafrechts. Allgemeiner Teil*, 5ª edic., Duncker & Humblot, Berlín.
- Günther KAISER (1993), "Vitimologie heute", en P-A. Albrecht y otros (Comps.), *Festschrift für Horst Schüler-Springorum zum 65. Geburtstag*, Carl Heymanns, Colonia, pp. 3 ss.
- IDEM (1996), *Kriminologie. Ein Lehrbuch*, 3ª edic., C.F. Müller, Heidelberg.
- G. KAISER, H. KURY, H.-J. ALBRECHT (Comps.) (1991), *Victims and Criminal Justice*, 4 Vols., Max-Planck Institut, Freiburg i. Br.
- Gerd Ferdinand KIRCHHOFF, Ester KOSOVSKI, Hans Joachim SCHNEIDER (Comps.) (1993-94), *International Debates of Victimology*, núm. 11-12, WSV Publishing, Mönchengladbach.

- Gerardo LANDROVE (1990), *Victimología*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- M^a de la Luz LIMA (1995), "Servicios a víctimas en México", en *Justicia y atención a víctimas del delito*, 50^o Curso Internacional de Criminología, México, pp. 11-82.
- Julio B. MAIER (1991), "La víctima y el sistema penal", *Jueces para la Democracia*, 12, 1, pp. 31 ss.
- Andrés MARTINEZ ARRIETA (1990), "La víctima en el proceso penal", *Actualidad Penal*, núm. 4, enero 1990, pp. 41 ss., febrero 1990, pp. 49 ss.
- R.I. MAWBY, S. WALKLATE (1994), *Critical Victimology. International Perspectives*, Sage Publications, London.
- Jürgen MEYER (1996), "Zur Reform des strafrechtlichen Sanktionensystems unter besonderer Berücksichtigung des Täter-Opfer-Ausgleichs", en K. Schmoller (Comp.), *Festschrift für Otto Triffterer zum 65. Geburtstag*, Springer, Wien, pp. 629-647.
- Juan de MIGUEL ZARAGOZA (1987), "Hacia un sistema europeo de indemnización a víctimas de delitos", *Boletín de Información del Ministerio de Justicia*, núm. 1462, 25 julio 1987, pp. 1861 ss.
- Koichi MIYAZAWA (1986), "Viktimisierung im Strassenverkehr in Japan", en H.J. Hirsch, G. Kaiser, H. Marquardt (Comps.), *Gedächtnisschrift für Hilde Kaufmann*, Walter de Gruyter, Berlín, pp. 321-327.
- Koichi MIYAZAWA, Minoru OHYA (Comps.) (1986), *Victimology in Comparative Perspective*, Seibundo Publishing, Tokyo.
- Kerry MURPHY HEALEY (1995), "Victim and Witness Intimidation: New Developments and Emerging Responses", *Research in Action*, october 1995, National Institute of Justice, U.S. Department of Justice, Washington, pp. 1 ss.
- Ignacio MUÑAGORRI (1994), *Eutanasia y Derecho penal*, Centro de Estudios Judiciales, Madrid.
- Elías NEUMAN (1994), *Victimología. El rol de la víctima en los delitos convencionales y no convencionales*, 2^a edición, reestructurada y ampliada, Universidad, Buenos Aires.
- IDEM (1995), *Victimología supranacional. El acoso a la soberanía*, Universidad, Buenos Aires.
- Reynald OTTENHOF (1992), "Jovens autores e jovens vítimas: unidade ou dualidade?", en J.M. de Araujo Jr. (Comp.), *Ciência e Política Criminal em honra de Heleno Fragoso*, Ed. Forense, Rio de Janeiro, pp. 557 ss.
- Jaime M. PERIS RIERA (1988), "Aproximación a la Victimología. Su justificación frente a la Criminología", *Cuadernos de Política Criminal*, núm. 34, pp. 93 ss.
- IDEM (1989), *Proyecciones penales de la Victimología. Excesos dogmáticos ante deficiencias prácticas*, Conselleria d'Administració Pública de la Generalitat Valenciana, Valencia.
- Christian PFEIFFER (1993), "Opferperspektiven. Wiedergutmachung und Strafe aus der Sicht der Bevölkerung", en P-A. Albrecht y otros (Comps.), *Festschrift für Horst Schüler-Springorum zum 65. Geburtstag*, Carl Heymanns, Colonia, pp. 53 ss.
- President's Task Force on Victims of Crime*, Final Report, december 1992, Washington.
- Luis RODRIGUEZ MANZANERA (1996), *Victimología*, Porrúa, México.

- Carlos M^a ROMEO CASABONA (1995), "Sida y Derecho penal", *Problemas del tratamiento jurídico del Sida*, monográfico de *Cuadernos de Derecho Judicial*, núm. IV, Consejo General del Poder Judicial, Madrid, pp. 67 ss.
- Claus ROXIN (1989), *Strafverfahrensrecht: ein Studienbuch*, 21 edic., C.H. Beck, München.
- Antonio SANCHEZ GALINDO (1995), "La victimización de los menores infractores en América Latina", en *Justicia y atención a víctimas del delito*, 50^o Curso Internacional de Criminología, México, pp. 147-170.
- Hans Joachim SCHNEIDER (Comp.) (1982), *The Victim in International Perspective*, Walter de Gruyter, Berlín.
- Horst SCHÜLER-SPRINGORUM (1991), *Kriminalpolitik für Menschen*, Suhrkamp, Frankfurt am Main.
- Alfonso SERRANO GOMEZ (1986), *El costo del delito y sus víctimas en España*, Universidad Nacional de Educación a Distancia, Madrid.
- Klaus SESSAR (1993), "Ausländer als Opfer", en P-A. Albrecht y otros (Comps.), *Festschrift für Horst Schüler-Springorum zum 65. Geburtstag*, Carl Heymanns, Colonia, pp. 111 ss.
- Miguel Angel SORIA VERDE (Comp.) (1993), *La víctima: entre la Justicia y la delincuencia*, PPU, Barcelona.
- Abel TELLEZ AGUILERA (1993), "Las víctimas del delito en el Derecho español", *Cuadernos de Política Criminal*, núm. 49, pp. 133 ss.
- VARIOS (1992), *El Derecho penal y la víctima*, número monográfico de *Papers d'Estudis i Formació*, núm. 8, marzo 1992, Barcelona.
- VARIOS (1988), *International Protection of Victims*, Association Internationale de Droit Pénal, Ed. Erès, Toulouse.
- VARIOS (1993), *La Victimología*, Consejo General del Poder Judicial, Madrid.
- Victimología*, núms. 3 y 4 (1992), 13 (1995), Centro de Asistencia a la Víctima del Delito, Córdoba (Argentina).
- Peter WALDMANN (1996), "El nacimiento de la policía moderna en la Alemania del siglo XIX y algunas conclusiones relacionadas con la América Latina de hoy", en Idem (Comp.), *Justicia en la calle. Ensayos sobre la Policía en América Latina*, Biblioteca Jurídica Díké, Medellín, pp. 31-49.
- Ludwig WITTGENSTEIN (1993), *Tractatus logico-philosophicus*, 4^a reimpression, traducción e introducción de Jacobo Muñoz e Isidoro Reguera, Alianza, Madrid.
- World Society of Victimology Newsletter*, Membership Directory, Vols. 1 al 6, 1981-1987/88.
- Eugenio Raúl ZAFFARONI (1989), *En busca de las penas perdidas. Deslegitimación y dogmática jurídico-penal*, Ediar, Buenos Aires.